



ARRIA



ZUBEROAKO MASKARADAK

Jauzi bat, plaza hartu eta ahalduntzeko

46-49. orrialdeak

#2.869 | 2024 / 05 / 05 | 4,00 €



**Lavender, adimen
artifizialak gidaturiko
Israelen arma**

12 | PALESTINA



**Pertsona sexu-genero
disidentekak hizkuntza
"zikintzen"**

26 | EUSKARA



**"Europako Alderdi
Komunista sortzeko
lanean ari gara"**

31 | EHKS

MAIATZAK 11 Amillubin (Zestoa)

UDABERRIKO LURRA TAUPAKA FESTA

- 
- 11:00** Amillubi egitasmoaren aurkezpena eta bisita.
12:00 Bi ekintzen arteko aukera:
1- **Enekoachekin "Lurrarekin konexioa"** saio umoretsua. (**Antton Telleria**)
2- Baso bainu-ibilaldia **Tantai koperatibaren** eskutik.
13:30 Poteo musikatua (**EHko Batukada Feminista Sarea**).
14:30 Bazkaria.
15:30 Umeentzako clown ikuskizuna (**Itziar Saenz de Ojer**).
16:30 Bakarrizketa umoretsua **GREGO**ren eskutik (**Beatriz Egizabal**)
17:30 **Mejillon Tigre** kolektiboaren errezitaldia.
18:30 Kontzertuak: **Pelax, 3zur** eta **Babarrunba** taldeekin.

Umeentzako txokoa egongo da

APARKALEKUA Iraetako futbol zelaian.

EGURALDI TXARRA egin ezkerre Iraetako frontoian izango da festa.

SARRERAK aurrez salgai <https://entradium.com/eu/events/amillubi-festa>

Egun osoa: 20€

Goiza soilik: 10€

Arratsaldea soilik: 15€

Bazkaria (piknik): 10€

12 urtetik beherakoek sarrera
dohainik (bazkari gabe)



Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: MATHILDE BETACHET

Iritziak

- 21 | IKER IRAOLA
- 22 | KATIXA DOLHARE
- 23 | ARKAITZ ZARRAGA
- 23 | CASTILLO SUÁREZ
- 24 | IMANOL SATRUSTEGI

Finkoak

- 40 | BIZI BARATZEA
- 44 | ARGIA KOMUNITATEA
- 45 | DENBORAREN MAKINA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



JAIZKI FONTANEDA / FOKU

31 | "BATASUN ESTRATEGIKOA LANTZEN ARI GARA EUROPAKO ALDERDI KOMUNISTA SORTZEKO"

Euskal Herriko Kontseilu Sozialistako Peio Ormazabal eta Beñat Aldalur elkarrizketatu ditu Xabier Letonak. Mintzatu dira egun pilpilean diren gaiez, beste eragileekin dituzten harremanez, antolatze moduz eta Europa mailan Alderdi Komunista sortzeko asmoz egiten ari diren lanaz.

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Adimen artifizialaren esku utzi du palestinarren hilketa Israelek

Jenofa Berhokoirgoin

16 | PERTSONAIA | AMADOR FERNÁNDEZ

"Gure gizartean desira gutxi dago, eta obedientzia asko agindu neoliberaleri"

Danele Sarriugarte

26 | GIZARTEA

Euskara okupatu, marisolasteko

Olaia L. Garaialde

36 | INAZIOARTEA | TRANS AKTIBISTAK

"LGTBI komunitatea eta emakumeak beti egon gara salbuespen egoeran"

Maria Ortega

46 | KULTURA

Maskaradaren hegaletan

Ainize Madariaga

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Ainara Rodil, Amaia Lekunberri,
Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirgoin, Jon Torner,
Lander Arbelaitz, Leire Artola,
Manex Moreno, Mikel Garcia, Olaia L.
Garaialde, Onintza Irureta, Pello Zubiria,
Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produkzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

Aloña Soruluz, Bego Zuza

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: S5 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa


 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuentzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.



Ekoedizioaren Institutuko bazkide da ARGIA


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA



3^m

NO ESTACIONAR

VE DE POSICION
OR DEL VEHICULO
EN POSIZIO ETA
ARGIAK PIZTU

#BOTAKURTEL

#BOTAKURTEL

Hinteligentzia

Pedro Sanchezek demokrazia burgesaren egiazko aurpegiaren laztanak gertutik ezagutu dituen aste berean, berezkoa duen antzezle sena galdu barik, bere gorbarnuko gerraburu Margarita Roblesek esan du gastu militarra handitzea bakearen alde jardutea dela. Gernika bonbardatu zuten 67. urteurrena ate joka zela, Espainiako militarrentzat jostailu hilgarri gehiago erosteko 1.130 milioi eurotan handitu du "defentsa" aurrekontua "ezkerreko" gobernua. Gerraren kulturak bizi gaitu, eta haren gorazarrerako museo biziak ditugu etxebizitza artean. Argentinako eta Paraguaiko zenbait zonalde konkistatu eta kolonizatu zituen euskal herritarren omenezko kalean dagoen Bilboko Iralako kuartela kasu. Auzokideei lapurtutako 6.500 metro karratu, "hinteligentzia militarra" betikotzeko.

OSKAR MATXIN EDESA / FOKU AXIER LOPEZ



...TARRIK EZ IRALAN, EZ INUN BEZ!!
BOTA KUARTELA



Askatasunaren Ontzidia bertan behera geratu da momentuz

ASKATASUNAREN ONTZIDIKO EUSKAL AKTIBISTAK*

Apirilak 27, bederatzigarren eguna Istanbulen. Askatasunaren Ontzidiak beste kolpe gogor bat jaso du. Akdeniz ontziari Ginea Bissauko bandera eta dokumentazioa kendu dizkiote eta, ondorioz, ez dauka itsasoratzeko baimenik. Gauzak horrela, ekimena bertan behera geratu da momentuz, eta etxera bueltatuko gara ekintzaile guztiak.

Duela egun batzuk jakin genuen Ginea Bissauko ikuskatzaile bat bidaliko zutela ontzia ikertzera, AEBen eta beste herrialde batzuen presioen ondorioz. Ikuskatzaileak esan du, espero genuenaren aurka, ontzia nahikoa ondo dagoela ateratzeko, nahiz eta ikerketak aurrera jarraitzen duen. Hala ere, bandera kendu diote ontziari, irteera debekatzeko.

Agerian geratu da, orain artekoarekin ez bazen nahikoa, auzi politikoa dela ontzidia oztopatzea, eta ez teknikoa, argudiatu nahi zuten bezala. Izugarriak izan dira AEBen presioak, Israelenak eta Europar Batasunarenak, batez ere Alemania eta Erresuma Batuen aldetik. Eta azken pausoa izan da ontziari bandera kentzea.

Badugu frustrazioa bueltatzeagatik, noski, baina pozik gaude ere Palestinaz pentsarazi diogulako gizarteari

Ginea Bissauko Estatu Batuen laguntzaren menpekotasun ekonomiko handia du, eta azkenean men egin behar izan dio haien presioei.

Ez genuen uste hainbeste presio jaso-ko genuenik gurea bezalako ontzidi baten aurka, baina hala izan da. Israelgo Armadak aboradatu gintuela esan zuen eta aitzakia ugari jarri dituzte, bata bestearen atzetik. Argi dago min egin diela gure egitasmoak. AEBetako unibertsi- teetan ere babes handia eman digute, eta haien ere entzun behar izan dute antisemitak direla, betiko leloa. Gobernu ugari ari da laguntza ematen Israeli, izan zuzenean ekinez edo isiltasun bidez, eta ez

dute nahi gizarte zibila mobilizatu dadin.

Gaur, apirilaren 27an, mobilizazioak egin ditugu Istanbulen. Protestek helburu ugari zituzten: salatzea Israelen Askatasunaren Ontzidia abiatu ez zedin egindako presioak, salatzea palestinar herriaren aurkako genozidioa, Palestinaren askatasunerako eskubidea aldarrikatzea eta argi uztea erabakia hartua dugula Gazaren blokeoa apurtuko duen ontzidia bidaltzeko. Elkarretaratze batean prentsaurrekoa eman du koalizioaren antolakuntza taldeak, eta jakinarazi gabeko manifestazio bat ere egin dugu.

Badugu frustrazioa bueltatzeagatik, noski, baina pozik gaude ere Palestinaz pentsarazi diogulako gizarteari. Oraingo ezingo da Ontzidia abiatu, baina aterako da. Gazaren aurkako blokeoa apurtu beharra dago, humanitatearen aldeko borroka da gurea, palestinarren borroka. Ezin dugu oraindik esan noiz eta nola egingo dugun, baina egingo dugu. ●

* Pili Revilla, Agus Gorbea eta Mikel Zuloaga 'Mikelon'



MATERIALISMO HISTERIKOA

Keinuak



UXUE APAOLAZA LARREA

Asmatuz gero, ziur asko, eraginkorragoa da keinu bat, hitz bat baino. Zenbat bider esan eta ezeztatu dugu mila hitzek irudi batek baino gehiago balio dutela. Barkatu, alderantziz da. Ez da bakoitzak zenbat balio duen, da zertarako. Zerbait ulertzen burua bihurritu nahi duenarentzat hitzak, den-dena ulertu eta arakatu gabe ekiteko gai denarentzat (batzuetan nahikoa da den-dena baino lehen) keinuak, irudiak.

Estatu Batuetako zapaldua izateak beste edonongoa izateak baino foku gehiago ditu, eta horregatik iritsi zaizkigu hango keinu gehiago, autobusean non eseri zen, ukabila zein podiumetan altxatu zuen, nori esan zion joan zuek Vietnamera.

Gurean ere baditugu gogoangarriak, Sevillatik agurtu gintuzten Giralduak, kasu. Eta Gran Hermanora sartu zirenekoa. Orduan, ordea, efektu handiagoa izan zuen lehiakide batek emandako erantzunak: "horrelak ez mutiko, horrelak ez".

Gertuago, denboran, Jagoba Arrasate galdera gaztelaniaz entzun bitartean haserrea ur tragoka isilduz, "euskaraz erantzungo dizut" esan aurretik. Aissa Intxausti, (Sarasua), beti kantzelatuta dauden gure atalak gure eta libre aldarrikatzen.

Eta, azkena, Nico Williams, eraso arrazistak bakarka jasanez, partiduak aurrera zerraienez Frente Atlético faxistak beren eserleketan, melanina ukabil, azala alderantzikatuta, gola ospatzeko belztasunari zaplaztekoka, Aitor Zabaleta hil zutenen masailetan. Hitzak, bakoitzaren kontu. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Euskara

Eibarko udaltzain bat euskararen ezagutzatik salbuetsi du epaitegi batek. Udaltzaina 1992tik ari da lanean euskararen eskakizuna zuen lanpostu batean, eta egonkortze prozesuko lehiaketan euskarak baldintza gisa jarraitzen zuen. Udaltzainak helegitea jarri eta epaileak arrazoi eman dio.

Kultura

Makusi jaio da, haur eta gaztetxoentzako euskarazko lehen plataforma. Makusi Kluba aktibitateen komunitatea ere badakar EITBren proiektuak. Adinaren arabera kontrol sistemak ditu Makusik gurasoen eskura, eta eduki bakoitzaren "balioen fitxa" bat ere bai.

Hezkuntza

Neskek gaitasun matematiko eta zientifikoekiko txikitatik duten pertzepzio, autopertzepzio eta bizipenen eraginez (antsietate matematiko handiagoa dute adibidez, eta konfiantza falta handiagoa), zientzia arloko ikasketetatik urrundu ohi dira. Hala dio ikerketa berri batek.

Intimitatea



ULA IRURETAGOIENA

Etxe batean badira zenbait gune, gutxitan erakusten zaizkionak etxetarra ez den norbaiti. Esan trastelekua, ganbara, galdara gela, armairu bat. Askotan lurrazpiko etxeko oinean edo irisgarritasun gutxiko etxearen goialdean kokaturik dira. Etxearen txoko hauek lotsa, zer-pentsatuko-dute beldurra aktibatzen dute. Zikina, desordenatua edo kanporako sortu dugun pertsonaiaren ezaugarriekin bat ez datorren zerbait da; ez-da-erakusgarria ulermena ematen diogun guztiaren kaxoian sartzen duguna. Ezkutuan gorde beharrekoa, badaezpada. Lotsagarria kontsideratzen dugun espazioan ni-neuk edota oso gertukoek bakarrik izango dute sartzeko baimena, eta sentipena da babestu egin behar direla ez-etxeko jotzen ditugunen begirada edota epaiketarik. Batzuetan giltzapeturi-ko espazioak izan daitezke inkluso. Baina irekigarriak egiten direnean, zeharkatze-esperientzia bat gertatzen da, entitate bereziko espazio batean barneratzen ari garelako, sakontasuna duen txoko bat.

Paul Preciadok *Pornotopia* liburuan dio, *Playboy* aldizkariak sortutako emaztegabeko maskulinitatearen apartamentuan, intimitaterako eta gizonaren pribatasunerako etxeko bi txoko gordetzen zirela: bulegoa eta komuna, eta Preciadoren irakurketan, garuna eta uzkiaren espazio-adierazpenak dira hauek. Eta domestizitate publikorako sortutako sukalde, egongela eta ohe teknologizatua, eskua, begiak eta zakila dira. Esanguratsua.

Intimitate espazioak intimitate esferak dira, eta matrioska baten moduan osatzen direla ematen du: gorputzaren zenbait gune besteak baino intimoagoak sentitzen ditugu, gure gorputzaren inguruko espazioa ere babesteko beharra suma dezakegu, gureak diren objektuekin bezalaxe, eta etxeko gure espazioekin edo bizi gareneko lurraldeko lurzatiekin, berdin. Esfera espazio hauek elastizitatea dute handitu eta txikitzeko, gogortu eta desagiteko, egunaren eta egoeraren arabera, forma desberdinetako intimitate arkitektura bat. ●



EFE

Pertson(alismo)en politika

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Sánchez Sánchez Sánchez Sánchez. Bost egun errepikaren errepikaz. Enpatxura arte eztabaidatu da "hausnarketa" egun batzuk hartzeak zenbat duen zintzotik eta zenbat jokaldi politikotik. Baina deus ez bere egiteko moduez.

PSOeko eta gobernuko hurbileneoak ere "shockean" utzi zituen Sánchezek, bere sare sozial pertsonalean zabaldu zuen gutuna irakurtzean jakin baitzuten bost egun hartzen zituela "merezi duen edo ez" erabakitzeko. Hausnarketarako bost egun hartzen badituzu, diot nik, hartu ditzakezu aurretik behintzat ordu batzuk, hain erabaki erabakigarria izerdikide dituzunekin partekatzeko. PSOE eta gobernua bera, proiektu kolektiboak baitira, ala?

Egiteko modu horiek ez dira salbuespen, ordea. Aspaldikoa da proiektu politikoko kolektiboak pertsona bakar batean irudikatzen edo, are, uzteko joera. Mende hasieran, PPK ez zuen ezkutatu José María Aznarrek berak erabakiko zuela zein izango zen bere ordezkoa alderdiaren buruzagitzan. Orduetik, joera hori indartu eta tradizio politikoko guztietara zabaldu da. Hasi berri diren Kataluniako hauteskundeetarako, Junts per Catalunya alderdiak izena aldatu du, Junts + Puigdemont per Catalunya hobetsiz.

Eskuinak egitea, tira, baina kolektiboaren indarra, herritarren eta militanten parte-hartzea edo komunitarismoa aldarrikatzen dituzten ezkerrek logika berean doazen jokabideak izatea... Podemos Pablo Iglesiasen lidergoaren inguruan eraiki zen, eta kargua uztea erabaki zuenean, ordezkatu zuena Yolanda Díaz izango zela ere utzi zuen erabakita. Iragan hilabeteetan zenbait aldiz adierazi zuen Arnaldo Otegi "eskubidea irabazia" zuela erabakitzeko EAEko lehendakari izango zen edo ez.

Azken urteotako aldaera berri bat alderdien hautagai "independentek" dira: Manuela Carmena edo Yolanda Díaz Espainian, Miren Larrion Euskal Herrian, esaterako. Ezberdintasunak handiak izanagatik, bada hari komun bat. "Pertsonen politika" (pluralean) aldarrikatu dute "alderdien politikaren" aurrean, baina alderdiek baino politika are pertsonalistagoa (singularrean) egin dute gerora.

Fokua, dena den, jarrera eta modu horiek bultzatzen dituzten logiketan jarri behar da pertsona zehatzengan baino gehiago, eta hor erantzukizunak kolektiboak dira. 1979ko hauteskundeetako *Alkaterik onena...* *Herria!* kanpainak aurpegi gabeko kartela zuen euskarri nagusi; azken urteetan, hautagaien lehen plano erraldoiak dira ardatza nonahi. Harrigarriena ez dira aldaketa horiek guztiak, harrigarriena da arretarik ere ez deitzea, eztabaidarik ez piztea, ez baita auzi estetikoak, baizik eta sakonki politikoa. ●

22

gaitz behatu beharko ditu Osakidetzak jaioberrien orpo-proban, Espainiako Gobernuaren aginduz. Jaurlaritzari koloreak atera dizkio Madrilek: Osakidetzak iragarri berri duenean orpo-proban 12tik 14ra igoko duela behatuko duen gaitz kopurua, gutxienekoa 22 gaitzetan ezarri du Madrilek.

3

herrialdek (Danimarka, Suedia, Irlanda) baino ez dute izango EBn nahikoa gaitasun inbertsio sozial eta berdea egiteko, hainbat eragilek salatu duenez. Izan ere, pandemia aurreko zerga arau zorrotzetara bueltatzeko bidean da Brusela.

24

orduan dago operatibo haurrei eta nerabeei arreta emateko 116111 Zeuk Esan EAEko telefono-zerbitzua, maiatzaren 2az geroztik. Egunero arreta ematen duen zerbitzu honek 1.625 kontsulta erantzun zituen 2023an.

“Pandemian mugak itxi zituzten, nahi zuten harremana moztu, baina muga elkargune bilakatu dugu”

OIHANA BIDART

Baigorriko Basaizea elkarteko kidea

Nafarroaren Eguna antolatu zuten apirilaren 28an, Baigorriin.

BERRIA.EUS (2024-04-27)



“EITB-N MARKO ESPAINIARRA GAIENDU IZANAK KULTURA ETA HIZKUNTZA KOMUNITATE GISA GALBIDERA GARAMATZA”

ALDATU GIDOIA MUGIMENDUA

Mobilizazioa deitu dute maiatzaren 18rako Gasteizen, euskararen aldeko politikak aldarri.

2024-04-25

“EHUk konpromisoa hartzen du Palestinan gertatzen ari diren gizateriaren aurkako krimenak gaitzesten ez dituzten Israelgo unibertsitate eta erakundeekin harremanak hausteko”

EHU-KO GOBERNU KONTSEILUA

2024-04-24



Nora begiratu?



DIANA FRANCO

Incel, cyberbullying, sexting, cat-fishing, ciberbating, doxxing, gaslighting, grooming, sextorisioa... Azkenaldian, gizakion jokabide ezkor guztiak eremu digitalean “tag-eatuak” izaten ari dira, badirudi eremu fisikoan genituen adierazpenek ez dutela balio errealitate digitala azaltzeko, edota gauza bera esateko terminologia aldatu behar dela tresna aldatu egin delako eta bortizkeria eragiteko moduak tresnekin ere eraldatu egin direlako, nahiz eta azken finean atzetik bortizkeriaren izaera bera dugun. Gainera, terminologia bera oso kolonialista da, eta askotan gaurkotasun grinak konkistatuta geureganatzen dugu –aitortzen dut nik neuk sarri erabiltzen dudala terminologia hau–.

Hitz hauek guztiak gizakion arteko harreman digitaletan egon daitezkeen bortizkeria harremanen inguruan ari ziren direnez, profesional askok azaltzen dizkigute, errealitate honen kontzientzia har dezagun. Euskaraz “izena duena da” adierazpena dugu, behar bada ideia horrekin ulergarriago zaizkigu dugun errealitate digitala, askotan ukie-zina, eta bere ondorioak. Baina bide honek despitu gaitzakeela uste dut, gure begirada behar ez den lekura eroaten. Behar bada, betiko arazo bati buelta larregi ematen ari gatzazkio, eta arazoa konpontzeko modua ahazten, edo alde batera uzten, denok pantailari begira gauden bitartean, hurrengo jokabide bortitza definituko duen hitzaren zain.

Jakin badakigu arazoa gizakion naturaren baitan dagoela, horregatik, ez dezagun begirada galdu, terminologia gure buruetan metatuz, eta balioen hezkuntza ahaztuz. Dagoena azaldu beharrean, sor ditzagun bortizkeriari aurre egiteko bideak. Bortizkeria bere espresio guztietan borrokatzeak gizarte batek bere baitan dituen balioetan du oinarria, hortik hasita gizarte horrek sortuko dituen harreman dinamiketan, teknologietan eta horien erabileran ikusiko baitira balio horiek islatuta. ●



SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA

Euskara “politizatua”

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Soziolinguistika Klusterrak 2024ko Euskal Soziolinguistika Jardunaldia antolatu zuen Gasteizen apirilaren 23an. Azken urteetan euskararen eta katalanaren inguruan agertu diren diskurtsoak izan ziren ardatz. (Jardunaldien kronika osoa: <https://labur.eus/8BylQ>)

Onintza Legorburu (Emun) izan zen hizlarietako bat. Legorburuk euskararen alde ondu diren eta ontzen ari diren hainbat diskurtso aukeratu zituen eta haien erreparoa egin zuen. Etnizitatetik harago doazenak landu zituen, alegia, “bi nazionalismoak gainditzen dituztenak”.

Gaur egun “denentzako euskara” norabidean ari den diskurtsoa aipatu zuen lehenbizi. Atzera egin eta indar handiena izan duen diskurtsoa gogora ekarri zuen: identitate nazionala erdigunean jartzen zuen diskurtsoa. Gabeziak dituen diskurtsoa dela dio Legorburuk, eta euskalgintzan diskurtso aldaketarako gogo nabaritzen dela azaldu zuen. Euskara abertzaletasunarekin lotzetik urrundu eta identitate zabalago baterako proposamena egin da: euskara guztiona da, euskara despolitizatu nahi da (alderdi politikoen eskematik atera, behintzat), euskara zabaldu. Oinarrian halako elementuak jarri dira: bizikidetzeta, aniztasuna, justizia. Identitate nazionalen oinarritutako diskurtsoa agortutzat eman du Legorburuk, baina zehaztu du herritarrek diskurtso horretan oinarritzen segitzen dutela, alegia, herritar askori galdetuz gero zergatik egiten duen euskaraz, erantzuna da, “euskalduna naizelako”.

Bigarrenik, euskara ardatz ez izanda ere, azken urteetan euskarari asko begiratu dioten gizarte mugimenduak hartu zituen kontuan. Bi aipatu zituen: mugimendu feminista eta gazte sozialisten mugimendua.

Legorburuk azaldu zuen mugimendu feministak euskalgintzak proposatutakoaren alderantzizko ekarpena egin duela, hau da, hizkuntza birpolitizatu behar dela dio, intersektionalitate ardatz hartuta, botere harremanen sarean hizkuntzak ere bere lekua baduela dio. Euskararen aldeko diskurtsoa justizia sozialaren parametroetan kokatzen du mugimendu feministak, hots, justizia sozialean sinesten duen edonork hartu behar du bere gain hizkuntzaren auzia.

Mugimendu sozialistari dagokionez, aipatu zuen bi monografiko dituztela euskara ardatz dutenak. Gazte mugimendu horrek klasea ekarri du irakurketetara, klasea analisirako kategoria bat da. Legorburuk zioen euskara oposizio elementu gisara kokatzen dutela, arauaren kontrako moduan. Klaseari lotuta, zer ikertua eta zer pentsatua dagoela gehitu zuen.

Azkenik, arlo sozioekonomikoari begiratu nahi izan zion. Euskara planek enpresa alorrean eta ekonomian erabiltzen den “lehiakortasuna” kontzeptuari zer ekarpen egin dioten galdetu du Legorburuk, eta hemendik aurrera euskara planek zer ekar dezaket. ●

Kartzelako hormak zeharkatzen dituen ama-alaben arteko harremana

 EITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Nekane Txapartegi Suitzako kartzela barrutik eta alaba kanpotik, elkarri hamaika modutara maitasun mezuak helarazten. Horra Txalaparta argitaletxeko *Zenbat lo* liburuak jaso duen historia, Iraitz Lizarragaren hitzetan eta Izaro Lizarragaren ilustrazioetan. Iragan hurbileko borroken kontakizunean sumatzen duten "hutsuneari beraien alea jarri" nahi diote, emakume ahotsean: "Euskaldun eta emakume gisa zapaldu ninduten, eta gehien min ematen zidan moduan, alabarengandik bereizita eta berarekin euskaraz komunikatzea zigortuta", adierazi du Txapartegik bete-betea zegoen Asteasuko udaltxeko aretoan. Apirilaren 23an egin dute aurkezpena, Txapartegiren amaren egunean: "Ama-alaben artean era askotako harremanak daude. Denbora askoan egon zen gure zain eta gu itzuli ginenean joan zen bera". Borroketan bizi izan diren harremanak, minak eta elkertasuna "beti kolektiboak" direla azaldu du. Izaro Lizarragak bide berean adierazi du: "Egoera bera bizi duten ume asko eta asko daude herri honetan, libururik ez dutenak. Haiak izan ditut gogoan ilustrazioak egiterakoan".

2016ko apirilean atxilotu zuten Nekane Txapartegi, Suitzako kartzelan. "Orduan egin ginen ikusgarri", seinalatu du; izan ere, erbestean jaio zen alabari "piraten bizitza" zeramatela azaldua zion ordura arte. Egoera gordinenetan ere "haurrei ez zaiela gezurrik esan behar" aldarrikatu du, "egoerak azaltzeko moduak" bilatu behar direla eta haurrek "ulertzeko hitz gutxi" behar dituztela: album ilustratu hau erreminta izatea nahi luke, hainbat gairi buruz helduak eta umeak elkarrizketan jartzeko eta hausnarketak egiteko. Ordura arte 24 orduz elkarrekin bizi ziren ama-alabak bereiztea ekarri zuen Suitzako kartzelaldiak, eta *Zenbat lo* liburuak tarte hori jaso du: ama-alabak bereizi zituztenetik berriz elkartu ziren artekoa.



"ALFERRIK ARI DIRA, EZ DUTE LORTUKO GURE MAITASUNA ETETEA"

Txapartegik kontaktu du alabari kartzela barrutik idatzi zion lehen gutunean zer esateko beharra sentitu zuen: "Nik ez zaitut abandonatu". Kartzelak amatasuna bere aurkako zigor modura erabili zuela azaldu zuen: "Alaba umerzurtz etxera eramango zutela esaten zidaten eta berarekin nituen bisitak kristal bat erdian genuela ziren. Oso gutxi hitz egiten da emakumeen borroka eta gure umeen kontra ere zuzenean jo dute, haienak ez dira kalte kolateralak". Gizartean "zigor soziala" ere badagoela salatu du: "Kartzelan dagoen ama, ama txarra, bere lekua utzi duena".

Inkomunikazio zorrotza ezarri zioten Txapartegiri eta egoera horretan barrutik espero ez zituen arte adierazpideak atera zituela gogoratu du irribarrez, alabari bidaltzen zizkion gutunak, poemak, irudiak eta komikiak gogora ekarri. Horien artean, pirata banda baten komiki bidezko istorioak nabarmendu ditu. Horrela zioen alabari idatzitako gutun batean: "Espetxe-ko zuzendariari idatziko diot alferrik

dabilela esanaz, ez duela lortuko gure arteko maitasuna itzaltzea".

Ama-alaben arteko harremana zerbait pertsonala izanik ere, "dena dela kolektiboa" zehaztu du Txapartegik: "Ama eta alaba asko daude, min asko daude. Min kolektiboak dira eta horiei denei leku egin behar zaie, inor ordezkatu gabe. Pertsona bakarrek ez dute ezer egiten, denok elkarrekin egin dugu bidea. Bai Euskal Herrian eta bai Suitzan piztu zen elkatasun sareari esker ere eusten zen alaba eta bion harremana. Nik banekien bera ongi zainduta zegoela kanpoan, hori gabe zailago egingo zitzaidan barruan eustea". Izan ere, elkatasun handia sortu zen Suitzako gizartean eta *Free Nekane* kanpaina izan zen guztiak batu zituen ardatza. "*Free Nekane*, bai, baina *free* amatxo. Zu nire ama ere bazara", aldarrikatu zuen bere lekua borroka kolektiboaren barruan orduan 7 urte zituen alabak.

Izaro Lizarragak eta Iraitz Lizarragak adierazi dute argi zutela historia "ez zutela biktima positioetik kontaktu nahi, subjektu aktibo izango zirela album ilustratuko bi protagonistak". ●

ADIMEN ARTIFIZIALAREN ESKU UTZI DU PALESTINARREN HILKETA ISRAELEK

Titularra irakurri eta baten batek pentsatuko du esajerazio bat dela, neurritz kanpoko orokortze bat egin duela kazetariak. Israelgo informazio zerbitzuetako sei langile ohien lekukotasunetan oinarrituriko *'Lavender': The AI machine directing Israel's bombing spree in Gaza* ('Izpilikua': Israelek Gazan bonbardatzeko kanpaina zuzentzen duen adimen artifizialeko makina) erreportajea irakurri dezala hori pentsatu duenak. Seiak dira iazko urriaren 7az geroztik Gazan egondakoak, adimen artifizialari segi, makinak finkaturiko puntua bonbardatzen aritutakoak. Zinezko ankerkeria; ankerkeria distopikoa. Erreportaje horren laburpena duzue hau.

JENOFA BERTHOKOIRIGOIN

Markaturiko etxe guztiak bonbardatzera zetorren goizeko bos-tetan aireko armada. (...) Milaka pertsona eliminatu ditugu horrela. Ez ditugu banan-banan begiratu, modu automatikoan jarri dugu guztia; [markaturiko pertsona] etxeratu bezain laster helmuga bihurtzen zen: bonbardatzen genuen, bera eta bere etxea". Horrela dabiltsa Tsahal Israelgo armadakoak Gazako palestinarren desagerrarazten. Jomugan daukatenaren segipen hurbilik gabe, inguruko zibilak babesteko intentziorik gabe eta orotan larriena, makina baten manuak begiak hetsirik jarraikiz. Begiak itxita, baina begiak hesteko manuari segika: "Betebeharraren handitasuna ikusirik, protokoloak dio: makinak ongi funtzionatzen duenaren segurtamena ez baldin baduzu, badakizu estatistikoki dena ongi doala. Beraz, jo aurrera, ekin".

Adierazpen hori soldadu israeldar batena da. Testigantza horri esker eta horien plazaratzeko ardura hartu du-

ten +972 eta *Local Call* komunikabide independenteen ikerketari esker jakin dugu Gazako bonbardaketen lekuaren eta unearren finkatzeko ardura adimen artifizialaren esku utzi duela Israelek. *'Lavender': The AI machine directing Israel's bombing spree in Gaza* ('Izpilikua': Israelek Gazan bonbardatzeko kanpaina zuzentzen duen adimen artifizialeko makina) titularra dakar erreportajeak. *Lavender* izendatu dute sistema teknologiko hori, paisaia botanikoko more usaidun ederrari izena lapurtu eta gerrarako hilketara masiborako tresnari jarrita.

Tsahalek agiri bidez gezurtatu du ikerketak dakarrena, argi utzi nahi izan du *Lavender* erabiltzen dutela bakarrik arerioen jarraipenerako eta gaineratu du beti badagoela datuen azterketa xehean dabilen soldadu bat. Baina, agiriak pisu guti du kontrako adierazpenak dakartzaten sei lekukotasunen parean. Seiak dira Israelen informazio zerbitzuko langile ohiak eta urriaren 7az geroz-

tik Gazaren suntsiketan parte harturikoak. "Behin baino gehiagotan gertatu izan zait etxe bat erasotzea, [jomugan genuen] pertsona bertan ez izan arren. Emaizta? Familia oso bat hil duzu, arrazoirik gabe". Besteak beste, *Lavender*-ek informazioa eman eta bertaratu artean, pertsona etxetik atera zitzaielako. Gisa horretako adibideak ez dira bakanak erreportajearen.

Pertsonen bizien kentzeko erabakia algoritmoen esku uzteko ankerkeria distopiko horretan sarturik garelako egiazaturik, goazen hurbilagotik begiratzera *Lavender*-en funtzionamenduari:

PUNTUAZIOAREN ARABERA, HILTZEKOETAN EDO EZ

Gazako herritarren fitxatze masiboan oinarriturik, kriterio batzuen arabera 0 eta 100 arteko puntuazio sistema osatu du Israelek eta horrela joan dira Gazako palestinarrak sailkatzen. Bi milioi biztanlez gorako populazioaren



FNSEA

JOMUGAN DUTENA ETA BERE FAMILIA OSOA... Milaka palestinarren segipena egiten dabil *Lavender* sistema. Jomugan daukana bere etxean dagoenean eman ohi du bonbardatzeko manua. Horrek dakar pertsona horrez gain, bere familia osoa hil ohi dutela israeldarrek. Baimenduriko bidea da, albo-kalte edo hildako zibil kopuru altua onartua zaielako.

puntuaketatik atera dituzte 37.000 palestinar, dohakabeak, adimen artifizialak 100etik hurbil kokaturik eta beraz Hamas eta Jihad Islamikoa erakundee-tako kide gisa sailkaturikoak. 37.000 horien datuak *Lavender* sisteman sartu eta adimen artifizialaren esku utzi dute segipena. Lekukoek aitortzen dute "giza erabakiak balira bezala" segitu dituztela bonbardatzeko jarraibideak.

Urriaren 7az geroztik Tsahalen iriz-pideak aldatu direla diote. Hain zuzen, ordura arte Hamas edota Jihad Islamikoa taldeetako goi-kargudunak zituzten jomugan, baina *Iron Swords* [Burdinezko Ezpata] operazioa abiatzearekin batera erakunde horietako aktibista oro bihurtu zuten eliminatu beharreko arerio. Horrek bigarren aldaketa bat zekarren: "Dozenaka agente zirela jomugan, informaziorako langileek egin zezaketen jarraipena, banan-banan bakoitza zigortzeko eta lokalizatze

37.000 palestinar horien datuak *Lavender* sisteman sartu eta adimen artifizialaren esku utzi dute segipena. Lekukoek aitortzen dute "giza erabakiak balira bezala" segitu dituztela bonbardatzeko jarraibidea

denbora hartuta. Baina hamarnaka mila agenteko zerrenda zabaltzearekin onartu zuen armadak software auto-

matizatueta eta adimen artifizialean oinarritu beharko zuela jarraipena". Jomugan zirenei buruzko informazioari xeheki begiratzeko beharrik ez zutela jakinarazi zieten, gainera, buruzagiek. Iturri batek dio "batez beste hogeitasegundu" pasatzen zituztela pertsonaren datuei begira. Noraino doan genero eraikuntza, tarte labur hori izan ohi zuten justu begiratzeko hiltzera zihozena ez ote zen emakumea –erakunde horietan ez omen delako emakumezko aktibistatik...-.

Urriaren 7aren ondoko bi asteetan *Lavender* makina probatu zuten, eraginkortasuna eta emaitzak hurbiletik begiratu, eta %10eko errore tasa zuela ondorioztaturik, modu orokortuan erabiltzeko baimena eman zitzaizen soldaduei. Hots, *Lavender*-ek jomugan zituen 37.000etatik 3.700 errugabeek bizia galduko zuten, besterik gabe %10eko errorea onargarritzat jo izanagatik.

ETXEEN BONBARDAKETAK NAHIAGO

Ikusirik hil beharreko etsai bakoitzak duela etxe bat, *Lavender*-ek nahiago izaten du pertsonaren bizitokia memorizatu eta pertsonaren eta bizitokiaren puntuek bat egindakoan bonbardatzeko manua eman. Zer dakar horrek? Jomugan dutenaz gain, bere familia osoa dutela hiltzen. Zenbat aldiz ez dugu entzun "X kazetaria eta bere familia osoa hil du Israelgo armadak" edo "X Hamaseko burua eta bere familia osoa hil du Tsahalek". Gizagabetsun horren isla bat gehiago dugu programa horri erabiltzaileek jarri dioten izena: *Non dago aita?*

Hilketa baten albo-kalteen hein onargarria ere erabat aldatu da urriaren 7az geroztik. Hamaseko kide bakoitzaren hilketan beste hamabost zibil hiltzeko baimena zeukaten urriko lehen asteetan eta zenbaki hori ttipituz edo handituz zihono ondotik: "Praktikan, [bonbardaturiko etxeetako] pertsonak ez genituen kontatzen, ez zelako erraza. Aste baten buruan, albo-kalteen heina [hamabostetik] boste-

Hamaseko ardura gutxiko kide baten hilketarako, inguruko hamabost bat zibil hiltzeko baimena dute; baina goi-kargudunentzat, ordea, "ehundakako" langa dute baimendurik

ra jeitsi zuten eta horrek erasoak zaildu zizkigun, familia osoa etxean izanez gero ezin genuelako bonbardatu. Laster igo zuten berriz albo-kalteen heina".

Inguruko hamabost bat zibil hiltzeko baimena Hamaseko ardura gutxiko kideentzat, baina goi-kargudunentzat,

ordea, "ehundakako" langa dute. Abenduaren 2ko desmasia oroitzen du lekuko batek: "Shuja'iya batailoiauren aurkako bonba-atentatuarekin bagenekien ehun zibil baino gehiago hilko genituela. Niretzat, psikologikoki, hori ez zen ohikoa. Ehun zibilez gora: marra gorriaren gainditzea zekarren horrek". Gauza bera, Ayman Nofal Hamaseko buruetakoaren hilketarako, 300 zibil hiltzeko baimena zuten. Egun horretan bertan zegoen sorosle baten lekukotasuna dakar errepor-tajeak: "Bai, hil egin zuten, baina [Ayman Nofal]zein zen ez zekiten beste pertsona andana ere. Familia osoak hil zituzten, haurrak hil zituzten". Albo-kalte baimenduen hein hain altua ez da inoiz ikusi, ez Israelen partetik, ezta Sirian, Afganistanen zein Iraken AEBen partetik ere. Pentsa, Bin Ladenen kasuan 30ekoa zen.

Erasoan hildako zibilen kopurua baino inportantzia gehiago du armen ekonomiak. Nahiz eta desmasia handiagoak eragin, merkeagoak diren misil ez hain zehatzak erabiltzen dabilta Hamaseko buruak ez direnen erasotzeko -urria-



MAKINAREN MANUAK

Ikerketaren kari elkarriketaturiko Israelen soldaduek aitortzen dute makinaren manuak "giza erabakiak izan balira bezala" jarraitzen zituztela.



ADIMEN ARTIFIZIALAREN MENEKO Makinaren manuak betetzen dabilta Tsahaleko soldaduak: "Ez dakizu zenbat hil dituzun eta nor hil duzun. (...) Albo-kalteei buruz ez dakizu ezer. Ondoko jomugara zoaz, ahal bezain bat jomuga lortzea eta ahal bezain laster, horrek dauka garrantzia".

ren 7az geroko kasu gehienak direnak: "Balio handiko bonbarik ez duzu erabili nahi garrantziarik gabeko pertsonentzako. Horrek kostu izugarri handia du herriarentzat eta [bonba] eskasian gauden", dio lekuko batek.

Albo-kalteen neurketa ere adimen artifizialaren esku utzi dute: "Kalkulu erabat automatiko eta estatistikoko dira". Konkretuki, urriaren 7a aitzin eraikin batean fitxaturiko biztanleen kopurua oinarri harturik, urriaren 7az gerotik inguru horretan izandako lekualdaketak proportzionalki bidera-

tzen dituzte eraikinera. Adibidez, biztanleen erdiak ihes egin baldin badu auzo batetik, hamar biztanle zituen bizitokian bost zenbatuko dituzte. Nork? Algoritmoek: "Modelo hori ez zen errealitateari konektatua. Ez dago loturarik orain eta gerra aitzinean bertan bizitakoen artean. Gertatu zaigu etxe baten bonbardatzea jakin gabe hainbat familia zeudela barnean, elkarrekin gorderik".

Ankerkeria hori ikusita, ez gara harrituko jakitearekin emaitzei ere ez diotela begiratzen: "Ez dakizu zenbat

hil dituzun eta nor hil duzun. (...) Goi mailako buruen kasuan dugu ondoko segipena egiten. Besteentzat, berdinez gaitu. Eraikinaren suntsiketari buruzko aireko armadaren txosten bat jasotzen dugu eta kitto. Albo-kalteei buruzko ezer ez dakizu. Ondoko jomugara zoaz. Ahal bezain bat jomuga lortzea, ahal bezain laster, horrek dauka garrantzia". Eta horrela doa aitzina Gazako genozidioa. Erreportaje hau idazterakoan 34.262 hildako zenbaturik ditu Gazako Osasun Ministerioak. 34.262: datu erabilgarri bat gehiago algoritmoentzat. ●



ZINKUNEGI
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

zinkunegioptika.com



Amador Fernández

FILOSOFIA PIRATA



GURE GIZARTEAN DESIRA GUTXI DAGO, ETA OBEDIENTZIA ASKO AGINDU NEOLIBERALEI



Martxoaren amaieran Donostiara etorri zen Amador Fernández-Savater bere liburu berria aurkeztera: *Capitalismo libidinal* [Kapitalismo libidinala]. Bisita labur batek mami handia izan dezake. Madrilera itzuli aurretik elkarrizketatu genuen, harilkatuz politika, psikoanalisia, desira eta arreta.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  IBAI ARRIETA / ARGIA CC BY-SA

Hasteko, liburuaren abiapuntuaz galdetu nahi nizun, era askotako materialez osatuta dago eta. Nola sortu zen?

Apustu bat dago liburua teknologia gisa aurkezteko, teknologia oso ahaltsu gisa. Zer esan nahi dut? Gauzak argitaratzen dituzu, jendeak han-hemen irakurtzen ditu, bizkor, sareetan. Oso ondo dago, orainaldiko eztabaidetan esku hartzeko testu asko daude. Baina liburu bat egitea beste zerbait da, gauzak biltzen eta berrantolatzen dira, eta ohartzen zara nola beti tematzen zaren arazo eta obsesio beretan, nola testu batek bestera bidaltzen zaituen, eta alderantziz. Izenburuak artikulatzen du liburua. Materialak beste modu batean irakurtzen dira.

Egia da badaudela hari nagusi batzuk liburu osoan.

Ohartzen naiz zer neurritan aritu naizen, azken urteotan, desira eta kapitala gurutzatzen diren puntu horri buruzko ikerketa bat egiten. Ez da interesatzen zaidan gai bat: kalte eta min egiten didan arazo bat da. Norberarentzat gatazkatsua dena, hori ikertzen da.

Ikerketa hori hiru ildotan antolatzen da, liburuak proposatzen dituenak hain zuzen: batetik, antropologia neoliberala: zer egiten duen kapitalak gure desirarekin, eta nola mintzen gaituen horrek; bestetik, desiraren politikak: beharrezkoa da gure desira kapitatek askatzea, kapitalarekin lehiatzea desiraren terminoetan, beste bizitza desiragarriago batzuk pentsatuz; azkenik, gaur egun egonezi-

nak eskuinerantz jotzearen kontua: nola liteke gaur egun eskuinak konektatzea jendearen ondozarekin, eskuina bera izanik ondoeza eragiten duen sistema defendatzen duena?

Izenburura etorrita: zer da “kapitalismo libidinala”?

Izenburuan beste liburu bat omendu dut, Jean-François Lyotard-en *Ekonomia libidinala* (1974): obsesio moduko bat izan da niretzat, testu oso ezinezkoa, bikaina, zoroa. Kapitalismo libidinalaren kontzeptuak zera proposatzen du: analisi politikoa, ekonomia politikoaren analisia, analisi geopolitikoa, osatu egin behar dira planteamendu libidinal batekin, hau da, galdetu behar dugu zer gertatzen den gure gorputzarekin, gure desirarekin,



Amador Fernández-Savater

MADRIL, 1974



Ikertzaile independentea, aktibista, editorea, "pirata-filosofoa". Acuarela Libros eta *Archipiélago* aldizkaria zuzendu ditu beste batzuekin batera, eta mugimendu kolektibo batzuetan parte hartu du buru-belarri (ikasle-mugimendua, globalizazioaren kontrakoa, copyleft, Gerrari ez, V de Vivienda, 15-M). Berriki *Habitar y gobernar. Inspiraciones para una nueva concepción política* (Bizi izan eta gobernatu. Politikaren kontzeptio berri baterako inspirazioak) liburua kaleratu du, eta Oier Etxeberriarekin batera *El eclipse de la atención* (Arretaren eklipsea) bilduma koordinatu du. Bere lanak hemen daude eskuragai: www.filosofiapirata.net

gure zauriekin. Ez gara kapitalaren biktimak bakarrik: guk geuk erreproduzitzen dugu nolabait ere. Kateatuta gaudelako agindu kapitalistetan: errendimendua, produktibitatea, ikusgaitasuna, lehiakortasuna. Eta pentsatuko bagenu eraldaketa politiko sozialek porrot egiten dutela ez direlako gai alderdi *libidinala* ukitzeko?

Kaxildako aurkezpenean doluari buruz galdetu zizuten: prozesu politikoetan ere dolua egiteko beharraz, zehazki.

Elkarrizketa bat sor liteke psikoanaliaren eta politikaren artean, elkarrizketa zaila, gaizki-ulertuz betea. Egia esan ez dakit elkarrizketa hori posible ote den ere, probatzen ari naiz. Freudek galeraren lanketari lotuta pentsatzen du dolua. Dolua eta malenkonia bereizten ditu: dolu-lanak ireki egiten gaitu berriro desirara, bizitzara, berriro maitatzeko ahalmena ematen digu; dolu-lana egin ezean, malenkonian geratzen gara, bazegoen eta jada ez dagoen zerbaiten irudi fantasmatikora kateatuta; galera horri lotuta bizi gara.

Nola eraman liteke dolu-lana politikara?

Nire *zaharrek*, hau da 1970eko hamarraldiko militante ezkertiarrek, nirekin harremana izan dutenek, "bilana egitea" esaten zioten. Egindako saiakerari dagokionez: zer potentzia izan zituen, eta zer mugarekin topo egin zuen? Horrela, porrotak errepikatu ordez, gauza berrietara zabalitzen gara. Edo, gutxienez, [Samuel] Beckett-en esaldi ezagunak dioen moduan, "beste modu batean porrot egitera" irekitzen gara.

Iruditzen zait memoria-lan hori interesgarria dela oso. *La fuerza de los débiles* (Ahulen idarra. Akal, 2021) liburuan, 15-M mugimenduaren bilana egiten saiatu nintzen: zer potentzia izan zituen? Noiz agortu ziren potentzia horiek? Zer mugarekin talka egin genuen? Zer ikas dezakegu horretatik? Bestalde, iraultzaren dolua ere egin beharko litzateke, iraultzarik ezaren malenkoniara kateatuta ez geratzeko. Dolua egitea ez da "beste gauza batera pasatzea", ezpada bizipen batzuk barneratzea, ikaskizun batzuk.

Bilanik egiten al da gaur egun?

Nire ustez militantzietan ez da asko egiten; kontrara, pantailak zabaltzeko

eta itxeko pultsio neoliberal bat dago. Ordezkapen azkarrak bilatzen dira. Baina, kasu horretan, diosku Freudek, arazoa da errepikapena besterik ez dela lortuko.

Badago, halaber, kanpo-etsai bat bilatzeko joera: transak, migratuak...

Uste dut biktimizaziorako joera zabaldu samar dagoela. Biktimizazioaren ikuspegian, erantzukizuna hartzearen ikuspegian ez bezala, kasuan kasuko arazoaren baitan objektu bilakatzen gara, kalteak jasaten dituzten objektuak, eta ez ekintzak gauzatzeko gai diren subjektuak, arazoan sartuta dauden subjektuak.

Iruditzen zait eskuin muturra oso abila dela horretan, zera proposatzen die herritar multzo zabalei: agente gaizto batek sortzen dituela gaur egungo krisiak –klimarena, ekonomikoa, migrazioarena–, eta krisi horiek ez direla gure bizimodua aldatu behar dugula erakusten duten sintomak. Biktimaren figura delegazioaren figura bat da: gertatzen ari denaren interpretazioa eta konponbidea botere indartsu baten esku uzten da, botere *maskulino* baten esku.

Nolatan gertatzen da hori?

Freudek badu testu bat oso iradokitzaileria, *Analisi bukarria eta bukaezina*. Testu berantiar bat da; bera gaixo dago jada, seme bat galdu du gerran, naziak atzetik ditu: garai zaila bere bizitzan. Freud ilunago bat da. Eta baieztapen bat egiten du, latza nire iritziz: "Uste dut paziente askok ez dutela sendatu nahi". Hau da, errazagoa dela ezin egonean instalatzea, mingarria izan arren, eraldaketa-prozesu bat abiatzea baino, sendaketa-prozesu bat, horrek metamorfosia ekarriko baitu.

Freudek azalpen asko eman ditu horren harira, baina badago bat bereziki interesgarria iruditzen zaidana: feminitatearekiko ukoa. Pazienteak ez du ireki nahi, ez du laguntza eskatu ez jaso nahi, ez du abiatu nahi halako prozesu bat, kontrolaezina, bermerik gabea, non ez dakizun zehazki norantz zoazen edo zer gertatuko den.

Orduan, nire buruari galdetzen diot, psikoanaliaren eta politikaren arteko bidegurutze arriskutsu honetan, intimoaren eta politikoaren arteko bidegurutze honetan, ez al dagoen itxaropenik Rita Segatok adibidez *politika*



femeninoan izendatzen duen horretan. Ez litzateke soilik emakumeen politika, emakumeen gorputzek gauzatu, zeren badaude sentikortasun hori duten gizonak eta kontrako sentikortasuna duten emakumeak; da politika bat non mundua ez baita hartzen menderatu beharreko objektu gisa, baizik eta gu denok sartuta gauden eta gu denok osatzen gaituen trama gisa. Politika femeninoan: sostengatzen gaituen trama bizidun konplexuarekiko *irekidura* gisa. Zibilizazio-aldaketa bat, birdefinizio antropologiko bat ia. Liburuak behin eta berriro aipatzen du hori: ez dago makro eraldaketarik ez baldin badago gizatasun-beste baten ekoizpenik. Gatazka antropologikoa da.

Liburuko ideia asko irakurrita gogora etorri zaizkit feminismoetan, kuir teoriar, afektuen teoriar eta antzekoetan dabiltzan zenbait autore (Sara Torres, Alicia Valdés...). Eta zehazki, "utopia konkretuen" ideia, Herbert Marcuseri tiraka aipatzen duzuna, José Esteban Muñozek lantzen du *Cruising utopia* liburuan. Ezagutzen duzu?

Iraganeko autoreetara joan naiz, hobeto ezagutzen ditudalako, baina uste dut liburua baliagarria izan daitekeela orain antzeko frekuentzia batean dabilen jendearekin harremanetan jartzeko. Beraz, badut etxeko lanik! Marcusek utopien

harira lantzen duen ideiak badu alderdi interesgarri bat: berarentzat utopiak ez dira etorkizunerako eredu idealak – maiz horrela ulertzen diren arren –, baizik eta potentzialtasunak. Potentzialtasuna hemen dago, orainean, baina aldi berean hedatu egin behar da. Aldaketaren denbora pentsatzeko modu polita iruditzen zait: berehalakotasunetik ateratzen gaitu, sare sozialetako presentismo horretatik adibidez, baina orobat ateratzen gaitu etortze dagoenaren zain egote hutsetik. Hori da utopia konkretuaren ideia: potentzialtasun bat, orainean txertatua eta etorkizunari irekia.

Azkenaldian gazteekin ibili zara lanean. Azalduko zenidake zertan datzan proiektu hori?

Reina Sofía museoko egitasmoo baten bitartez, bi eskolatan aritu naiz lanean. Lehenik Iturralde institutuan, Madrilgo hegoaldean, eta orain Julio Pérez institutuan, Rivas-Vaciamadrid udalerrian.

Desafio erabatekoa izan zen niretzat; ez nago ohituta gazteekin egotera eta neurri berean eragiten zizkidan atsegina eta larritasuna. Ni lasai asko joan naiteke hitzaldi bat ematera Kax

ildara; kritikaren bat egiten badidate ere badakit zer esango didaten gutxi-as-

ko, baina parean edukitzea 14 urteko 30 gazte... hori bai larritasuna! Baina larritasunak desira adierazten du: bizitzak erronka jotzen digu.

Hasieran, filosofia pixka bat egin nuen, nire erara, filosofia pirata alegia, gazteen esperientziarekin elkarrizketa bat sortzen saiatzen, beren desira aktibatzeke espazio bila. Orain ezin dut ikasgelan lanean jarraitu denbora- eta burokrazia-kontuengatik, eta irratsaio bat egiten ari naiz hamabost urteko lau neskaekin: pentsatzeko espazio txiki bat.

Zer eman dizu esperientzia horrek?

Zenbat ikasten dudan haiei entzunda... Eta horrexetarako espazioak falta direla uste dut. Gazteei azaldu nahi diegu zer bizi duten: zer diren sare sozialak, zer den maitasuna Tinderren garaian, zer gertatzen den prekarietatearekin, ezinegonarekin, baina, eta haiei adituko bagenie? Nola bizi duten beraiek, nola izendatzen duten? Niri behintzat gazteak ez zaizkit iruditzen arazo bat, mehatxu bat; haiei entzunda sekulako adimena,

sentikortasuna eta berritasuna jasotzen ditut, eta horrek lagunduko digu zaharroi ez zahartzen, orainalditik ez deskonektatzen, hitzaldiak emateari uzten eta aditzen hasten.

Hori da utopia konkretuaren ideia: potentzialtasun bat, orainean txertatua eta etorkizunari irekia"

Baina ez dago espaziorik halako elkarrizketak garatzeko.

Beldur naiz eskola ez ote dagoen eraikita gorputzekiko ezezagutza handi baten gainean. Eskolak ez du ezertxo ere nahi jakin nahi gorputzei buruz, gorputzek ahal dutenari buruz. Balirudike gorputza ez dagoela ikaskuntzarekin lotuta, balirudike inori interesatzen ez zaizkion edukiak irakats daitezkeela edo gazteen ondoeza uler daitezkeela gorputzei aditu gabe. Jakintza ez da zorioneko opari baten moduan jasotzen; norberaren barrutik ernatzen da. Desirak ernarazten du. Ez dago espaziorik gazteak subjektu izateko, eta ez objektu, gazteak erdigunean egoteko eta jakintza-ren banaketan terminal pasiboak ez izateko; ez dago espaziorik zaharrek gazteen ahotik entzuteko nola ikusten, sentitzen eta pentsatzen duten haiek mundua.

Honen aurretik arretari eta arretarik ezari buruzko proiektu bat landu zenuen Oier Etxeberriarekin batera. Nola lotzen da arretaren kontua eta desirarena?

Simone Weil-ek esan zuen: “Desira bada-go, arreta dago”. Desplazamendu interes-garria da. Weilek proposatzen du desirarekiko harremanean pentsatu behar dela arreta. Zerbait desio dugunean, arreta jartzen ari gara. Beraz, kexa eta kexa ibili orde, gazteek arretarik jartzen ez dutela-eta, galdetu behar genuke zergatik ez duen lortzen eskolak gazteen desira piztea. Kasu horretan, eskolak izango luke arreta-defizita!

Baldin eta eskola laborategi bat balitz gazteek beren jakintza-bide propioa garatzeko, eta irakasleak beren bidelagunak balira –bide hori sustatu, akuilu-lana egin, erreferentziak pasa–, guztiz bestelakoa litzateke. Arazoa ez da teknologiek arreta galarazten digutela; arazoa da ez dagoela desirarik. Gure gizartean desira gutxi dago, eta obediencia asko beste agindu batzuei: errendimendua, produktibitatea, arrakasta, errealizazioa.

Desira piztea ez da irakasleak malabarrak egitea objektu distiratsuekin, hartara Tiktokekin lehiatzeko. Entreenimenduarengatik lehiatzea da hori. Desira beste zerbait da; prozesu bat; ez da ezein objektuekin asetzen, sufrimendumesetak izan ditzake; zaila izan daiteke, zalantzakoa, iluna, deserosoa. Desira-



ren bide singular bat asmatzeko gonbidapena, horixe eskaini lezake eskolak.

Arretari buruzko ikerketan ez zenioten eskolaren instituzioari bakarrik begiratzen, gizarte osoari baizik.

Izan ere gaur egun instituzio guztiek hiltzen dute desira, betiere desira ulertuz norbere bizitzako bide singularraren

asmatze gisa, eta ez hau edo beste nahi izatearen apeta gisa. Instituzio guztiak daude itxita desirari dagokionez; burokratikoak dira, normatiboak, hierarkikoak. Instituzioetan dena eginda dago, dena pentsatuta dago, dena esanda dago. Ez dago lekurik gauza berriak egiteko, pentsatzeko edo esateko. Desiratzeko. Eta, kontuz, Jean Oury psikiatrak zioen bezala, desirarik ezak gaixotu egiten gaitu. Desirarengatik bizi gara, desirarengatik gaude bizirik; desirarik gabe gaixotu egiten gara, somatizatu egiten dugu, deprimitu egiten gara.

Hasieran esan duzun eran, obsesio beretan tematzen gara beti.

Gauza berak dira beti. Eta norberak zintzoki aztertzen duenean bere burua, argi eta garbi ikusten duzu zure kezkez idazten duzula, egiten ez dakizunaz, bizitzako arazo gisa hartzen duzunaz. Ez duzu idazten menderatzen duzunaz, konponduta daukazunaz, badakizunaz. Horretatik liburu txarrak bakarrik ateratzen dira. Nik desirari eta arretari buruz idazten dut ez baitakit zer diren, arazoak ditudalako horiekin, ihes egiten didatelako. Ez dakizun zerbait garatzea da idaztea. ●

Maiatzekoa, kalean!

EUSKARA IKASLEA ZARA? IRAKASLEA?

- EUSKARAZ IRAKURTZEKO OHITURARIK EZ DUTENENTZAT
- BALIAGARRIA EUSKARA IRAKASLEENTZAT
- 10 ZENBAKI URTEAN

Egin harpidetza aizu.eus atarian. Harpidetza digitala, paperezkoa edo digitala+paperezkoa.



Joera kontrajarriak?

“Inoizko [EAEko] parlamenturik abertzaleena” vs. “Independentismoa minimo historikoetan dago”. Bi baieztapen horiek azken aldian entzuten ditugu, eta areagotu dira Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan apirilaren 21ean izandako hauteskundeetan ondotik. Bi esaldi horiek, konstatazioztat hartuta, mahai gaineratzen dira, eta joera politiko eta soziologiko kontrajarrien aurrean egon gaitezkeela dirudi, lehen begiratu batean. Baina bietan ñabardurak egin behar ditugula uste dut, eta bakoitzaren atzean ezkuta daitekeen helburuari erreparatu.

Momentua egokia da horretarako, ziklo elektoral bat ixtear baitago Hego Euskal Herrian; Europako hauteskundeak bakarrik geratzen dira. Maiatzeko udal eta foru hauteskundeak, eta uztailean egindako Espainiakoek, joera batzuk agerrarazi zituzten, eta apirilaren 21eko EAEko bozek joera horiek indartu dituzte; ez dira joera horiek eten.

“Inoizko [EAEko] parlamenturik abertzaleena”. Hauteskunde emaitzek errealitate hori ekarri dute, Gasteizko legebiltzarrean abertzaleak –mota desberdinetakoak– gehiengoa dira, ez bairrik gabe. Ez EAJk ez EH Bilduk ez dute haien programetan eta kanpainan izaera hori ezkutatu, baina, aldi berean, bai kanpaina eta bai azken aldiko eztabaida politikoa –aurrekanpaina *maratonianoarekin*– ez da nazio gatazkaren ingurukoa izan: zerbitzu publikoak eta etxebizitza

Bai kanpaina eta
bai azken aldiko
eztabaida politikoa ez
da nazio gatazkaren
ingurukoa izan:
zerbitzu publikoak eta
etxebizitza eskubidea
izan dira muin

eskubidea izan dira muin. Beraz, badi-rudi herritarrek botoa ematerakoan ez dela gai zentrala izan, batez ere EH Bilduk botoak erakartzeko izan duen gaitasunari erreparatuta.

Edonola ere, tranpatiagoa bigarren baieztapena iruditzen zait: “Independentismoa minimo historikoetan dago”. Espainiar nazionalismoak eta bere marko komunikatiboak azpimarratzen duten baieztapen horri ez zaio, euskal ikuspegi batetik, onarpen akritikoa eman behar, nire irudiko. Izan ere, herritarrei gaiari buruz zuzenean galdetzen zaie-nean, zer erantzuten dute? Bada, gauza desberdinak, eta tentuz aztertzea merezi dutenak. Batetik, EAEko Soziometroa bezalako inkesta serie luzei erreparatzen badiegu, ikusiko dugu 1998an %25 kokatzen zela “independentziaren



IKER IRAOLA ARRETXE
SOZIOLOGOA ETA
EHU-KO IRAKASLEA

alde” eta aurten, berriz, %22 (beste %33 “egoeraren arabera”). Tartean gora-beherak izan dira, noski, baina batez ere ondokoa gertatu da: “independentziaren kontra” daudenak aktibatu direla, batez ere, 2017tik aurrera, hots, Kataluniako erreferendumaren ostean.

Urte hori gakoa da independentziari buruzko posizio sozialak aztertzeko, nire ustez. Ordura arte bazegoen mantra bat eztabaida politikoa: “Indarkeriarik gabe proiektu politiko guztiak defenda daitezke”. Kataluniako prozesu baketsuak argi utzi zuen, baita Euskal Herrian ere, prozesu baketsu batek Espainiako estatuaren erantzun bortitza izango zuela. Gauzak horrela, etorkizun politikoari buruz beste modu batera galdetzen denean emaitza desberdinak ematen dituzte herritarrek: Naziometroak, esaterako, bere neurketetan erakutsi du herritarrek ez dutela erantzun bera ematen independentziari buruz modu abstraktuan edo, aitzitik, adostutako erreferendum baten osteko Euskal Estatu bati buruz galdetuta. Azken kasu horretan, gehiengoa da aldekoa kontrakoa baino.

Ondorioz, independentzia edota estatu propio bati buruzko jarrera soziala ez da argia, ñabarduraz betetakoa baizik. Hauteskundeetan emaitzek eskaini dezaketen auto-konplazentzian jausi gabe, uste dut gai honetan espainiar nazionalismoaren diskurtso interesatua ez sinestea gomendagarria dela. ●

Loa (txuntx)urrun



KATIXA DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

PAULA ESTÉVEZ

Zutabe hau idazten ari naizenean, eskola-oporrek hastear daude. Lankide eta ikasleek besterik ez dute ahoan, nola ez. Norabait joanen ote zara? Baietz, ezin duzu moztu, bestela. Etxean geldituz, begi bistan egonen zaitzazu lanerako deia: zuzendu beharreko kopiak, prestatzekoak diren kurtsoak, borobildu nahi dituzun artikuluak, jarraitzen dituzun elkarte biltzarren prestateta... Batzuek opor lekura eramanen dute ordenagailua, lana aitzinatzeke, denborarik ez galtzeko, lanean berriz hastea gogorregia litzatekeelakoan. Badu zenbait urte, gainera, ikasleek eta burasoei normaltzat daukatela irakasleekin harremanetan segitzea bakantzetan, etenik onartu gabe. Eta lortzen baduzu zure burua lanetik iraitzera, behin opor lekura heldurik, zer egingen duzue? Ibili, bisitak antolatu, familiarekin atara... eta suertez bakarrik gelditzen bazara, zutaz etsitu zuen liburua edo testua hartuko duzu, fite-fite zenbait lerro irakurtzeko edo idazteko. Hondarrean, itzuliko zara berdin nekatua, mila gauza kudeatu behar izan ondotik.

Egia erran, ez zara nehoiz gelditzen. Baina gelditu nahi ote duzu? Menturaz, ez. Zergatik? Beharbada inkontzienteki

oraino erne duzulako aspaldiko ahotsa, deus ez egitea edo plazer hutsarendako aritzea alferkeria dela diotsuna. Aitatzik erraten zigun: "Lan sanja, pausa". Hau da, pausatzea, ez da lanik egin gabe egotea, baina lan erritmoz aldatzea. Beharbada, lanetik ez zara askatzen mendetan hazi instintuak herio beldurrarekin lotzen duelako, zure baitako geldotasun egarria. Marina Tsvetaieva errusiar olerkariaren *Insomnia* poemak honela dio, Blaise Pascal filosofo jansenistari oihartzun eginez: "-Ez lo egin! Gogor egin! Egia diot! / bestela, betiereko loa da! / bestela, betiereko loa da!". Beharbada, lanean tematzen zara jendarte ero honek presio izugarria ezartzen dizulako, ezin duzulako haria galdu, behin-behinean bada ere, ezin duzula nonbait geratu ezer egin gabe. Lotan.

Zonbat denbora badu, hain zuzen ere, ez duzula nahi adina lo egin? Ez zara iratzargailuarekin lehian, goizetan, ea zoinek hasiko duen lehenik eguna? Hainbeste bada egiteko, hain dira premiatsuak egin behar pertsonal eta kolektiboak! Eta Axular leitua duzu, bada-kizu ez daitezkeela gerorako utz.

Loa: gai tabua da oraindik. Gai hori du jorratzen, manera interesgarritz, api-

rilaren 10eko *Le un hebdo* astekari frantsesak. Zenbaki horretan ikasi dut gaur egun 25-45 urte artekoen %45ak dioela ez duela behar bezainbat lo egiten, eta izugarriki areagotu direla lo arazoak gizarte osoan, adin guztietan, klase sozial orotan. C. Rauch soziologoak frogatua du emazteek, bereziki, pairatzen dutela lo eskasaz eta, egun bakarrean, lau "lan egun" dauzkatela erraten du: aktibitate profesionala, etxeko lana, lan emozionala eta gaueko lana, hori, loaren orde. P. Zawieja-k, berriz, aztertzen du zein heinetan errentagarria zaion kapitalismo handiari lotan pasatu beharko genukeen denbora. Akiduraren historia psikosozilogiko argigarria proposatzen du, egungo unadura mota berriak azalduz, hala nola "informazio-unadura", karga gehiegikeria edo deskantsu ezintasuna.

Arroztu zaigu loaren gozamenari, norik gure intimitatean amiltzeko une berezi hori, beldurgarria bezain atsegingarria izan daitekeena. Zorionez, loria handiko momentuak gerta dakizkigu, non bake-tsuki atsedean hartuko dugun, hala nola haur ttipia kulunkatzean, kantu ezti bat lagun, harekin batean lokartzeraino. Azkenean. ●

Garaipen gazi-gofoak



**ARKAITZ ZARRAGA
AZUMENDI**
EUSKARA IRAKASLEA

Gure kuadrillan, gazteagotan, askotan komentatzen genuen galtzera ohituta geundela. Hamaika gatazka txiki zein handitan murgilduta ibili ginen, ia beti arrazoiz jantzita eta irudimen handiz, baina gehienetan galdu. Pentsa! Guggenheimen aurkako plataforman aritu ginen *Guk geuk ein* leloa aldarri. Eta okupatu genuen gaztetxea zahar-egoitza da egun. Lagun batek esaten zuen moduan... “galduta ere hain ondo pasa eta hainbeste ikasten dugu... irabaztea *laostiatik* gorakoa izan behar da!”.

Inguruan beti izan dira borrokatzea merezi ez duela pentsatzen dutenak. “Galtzeko, gainera? Ze nezesidade!”. Baina ilusioak partekatzeak, lorpen txikiak dakartzaten satisfazioak, porrotak partekatzeak, zauriak elkarri sendatzeak... Horrek aberasten gaitu, azken finean; horrek betetzen digu motxila.

Dispersioaren aurkakoak, adibidez, bizitza erdia bete digu. Zenbat ekimen? Gogoan dut Arantzazun 800 pertsonak gose greba egin genueneko. Gure herriaren tamaina kontuan hartuta, ikaragarria! Astebetez hainbeste pertsona, hain leku esanguratsuan baraurik... Ez ginen inon agertu. Telebistetan, irradi eta egunkaritan... zero, betikoek salbu.

Baina, garaipen handiak eskuratu bitartean, zirrikituak bilatzen ere trebatu gara. Dispersioak sortzen zituen ondo-

rioetako bati irtenbidea emateko, 60 bat irakasle aritu ginen euskara klaseak ematen, presoak banaka hartuta, gutun bidez, telefono deiren bat akaso, bisitaren bat... Emaitzak itzelak izan ziren, pertsonalak (barrukoentzat zein kanpokoentzat) eta akademikoak. Euskara murruetako zirrikituetatik sartzera lortu genuen. Gure aldarria, orduan, bideratu genuen ikasketak horiek ofizialtasuna eskuratzera. Ikasleentzat onura handiak ekarriko zituen eta, gainera, erabat justua zen.

Baina horretan ari ginela, garaipen handietako bat heldu zen! Dispersioa amaitu! Ohiturarik ez dugu eta kosta egin zitzaigun guztioi ere sinestea. Klaseak bertatik bertara eta taldeetan ematea eskatu genuen. Eta baietz; ikasketa ofizialak ez, baina bertatik bertara, ikasleak “ezagutzeko” eta ukitzeko aukera eta guzti! “Ostia, irabazten ohitu beharko?”.

Guk jarraitu dugu, zutik diren bitartean behintzat, espetxeetan euskara modu ofizialean emateko aldarrikatzen. Eta halako batean hori ere lortu!

Garaipen gazi-gofoa, baina. Izan ere, ikasleak ezagutu eta orain are gehiago maite ditugunean, atea itxi zaigu. Orain euskaltegietan nahi ditugu. Batzuk barruan hasitakoa amaitzen, beste batzuk bisitan eta beste batzuk lankide. Aldarrian jarraituko dugu, orain ondo baitakigu irabaztea *laostiatik* gorakoa dela. ●

Eguna, ordua eta tokia



CASTILLO SUÁREZ
IDAZLEA

Tarteka bizitzak ekarrarazten dizkizu ahaztuta nahiko zenituzkeen oroitzenak. Xafan-ekin geratu naiz gaur kafea hartzeko, Xabier Mendigurenen *Oso latza izan da* liburuari buruzko solasaldia dugulako gero, eta konturatu naiz inoiz ez diodala ezer galdetu *aztungal* hitzarekin sinatu zuen adierazpen polizial hartaz. Egun horietan bizi izan zuenaz, ea bizi ala iraun egiten duen norbaitek torturak jasan ondoren. Badaukat nolabaiteko pudorea, ankerkeria bizi izan dutenei ezer galdetzea uzten ez didana. Baina bere zain nagoen bitartean burutara etorri zait gure lagun bat atxilotu zuten

eguna. Bere etxera miatzera eraman zuten eta ikusi ahal izan genuen urrutitik. Ez naiz akordatzan zein aurpegi zuen. Zein zen bere ibilera. Akordatzan naizena da Auzitegi Nazionaletik pasatutako beste lagun torturatu batek oihukatzen ziona: zein egunetan geunden, zein ordu zen, non geunden. Biziraupenerako koodenadak eman zizkion. Pentsatu nahi dut lasai egoteko ere esan ziola, zerbait esan geniola guk ere, baina ez dut gogoan. Baina maiz pentsatzen dut zer izan behar den denboraren nozioa galtzea. Minari tamainarik ezin hartu ahal izatearen antzekoa ote den. ●

Izan bedi Nurenberg berri bat



IMANOL SATRUSTEGI ANDRÉS
HISTORIALARIA

Aliatuek Bigarren Mundu Gerran irabazi zutenean, naziei zigor publiko eta eredugarria ematearen beharra azpimarratu zuten. Horretarako nazioarteko epaiketa bat antolatu zuten eta bertan lau epailek buruzagi naziak zigortu zituzten. Epaiketa hura aurrerakirik gabekoa izan zen. Besteak beste, erronka linguistiko bat zelako, epaiketan lau hizkuntza erabili zirenez itzulpen-sistema konplexua eratu behar izan zuten eta. Epaiketa-lekua ez zuten kasualitatez aukeratu. Nurenberg nazien hiri kuttuna zen eta kutsu sinboliko handia zeukan. Alderdi naziaren kongresuak eta indar erakustaldi publikoak bertan egiten zituzten, Zeppelin zelaigune handian. Hiri hartan ere onetsi zituzten lege arrazista diskriminatzaileak. Bada, epaiketa umiliagarriagoa izan zedin, Nurenbergeko justizia jauregian egitea erabaki zuten, haien gotorleku izandakoa zigor-leku antifaxista bilaka zedin.

Zoritxarrez gurean ez zen Nurenbergik izan, eta agian horrexegatik, berriz ere piztu da Iruñeko Erorien Monumentuaren inguruko eztabaida. Eraitsi, birmoldatu ala bere horretan utzi? Monumentua orban erraldoia da hiriaren erdigunean. Zalantzarik gabe inguruneak esku-hartze sakon bat behar du. Lehenik eta behin

Iruñeko Erorien Monumentua eraitsi beharrean, sinbologia frankista erretiratu eta mugimendu sozial askatzaileen aldeko zentro sozial bilakatu beharko litzateke

hiriaren erdialdean frankismoari gorazarre egiten dion tramankulutzar bat ezin delako bere horretan mantendu. Baina ez hori bakarrik, traba urbanistikoa ere bada. Bai monumentuak eta baita plazak berak ere oztopatzen dute oinez zein bizikletaz erdialdetik hiriaren hegoaldeko auzo berrietara mugitzeko lotura.

Baina, ene uste apalean, eraispena ezin da konponbidea izan. Memoria elkarte batzuen (ez guztien) ustez, monumentuari ezin zaio esanahia aldatu eta ondorioz erabateko eraispena defendatzen dute. Haien aburuz, soilik zigor-eremuak gorde beharko lirateke errepresioaren oroigarri modura. Baina frankismoa zi-

gor hutsa baino gehiago izan zen. Erorien Monumentua mingarria da, besteak beste, gogorarazten digulako milaka nafarrek estatu kolpean parte hartu zutela eta frankismoaren alde aritu zirela. Hori ere frankismoa izan zen eta gogoratu behar da. Halaber, erabateko eraispena atzerazina da eta diktaduraren arrastoa ezabatzea dakar. Ez al du orbanak erakusten behinola zauri bat izan zela?

Eraitsi beharrean, sinbologia frankista erretiratu eta mugimendu sozial askatzaileen aldeko zentro sozial bilakatu beharko litzateke. Benetako politika antifaxista egiteko eta frankismoa umiliagarri uzteko aukera bat da; Nurenbergeko epaiketa berri bat. Gainera, esku hartzeko modu ugari dago, modu askotara eraldatu daiteke erabat desagerrarazi gabe. Eraisketa ez da aukera bakarra.

Alabaina, susmoa dut erakunde publikoek eta alderdi sistemikoek ez dutela aukera pasatzen utziko. Gerra zibilean eta diktaduran zigortutakoen oroimen eraldatzailea zaborretara botatzen saiatuko dira eta birmoldatzea erabiliko dute 1978ko *Erregimenari* gorazarre egiteko. Monumentua beteko dute *demokrazia*, *bizikidetz*a, *bakea* edo *berradiskidetz*a bezalako hitzez. Eta ez dugu faxismoarekin berradiskidetu nahi. ●



Aurrematrikulazioa: **Maiatzak 6-24**

LANBIDE-HEZIKETA ZIKLOAK

Oinarrizko maila: Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak

Erdi maila:

Lorezaintza eta loregintza
Nekazaritza eta abeltzaintza ekoizpena
Elikagaien eraldaketa

Goi maila: Basoa eta natura ingurunearen kudeaketa

Zizurkil, Gipuzkoa 943 692 162 www.fraisoroeskola.eus

BIZI BARATZEA

Zure landareak zaintzeko

Jakoba Errekondoren eskutik




Bizi Baratzea
8. argitaraldia
25 €

Baratzezaintzaren jakintza osoa bildu da liburu honetan. Baratzearen entziklopedia.



Etxeko landareak
2. argitaraldia
25 €

Etxeko barruko, balkoiko, eta lorategiko 92 landare hobeto zaintzeko gakoak emango dizkigu liburu honek.



Ilargia eta landareak 2024
urteko lanen agenda
15 €

Landareekin egiten ditugun lanak jaso eta ikasteaz gain, agendan idatziko ditugu bakoitzak gure bizitzako hitzorduak, gogoan hartu beharrekoak eta gainerakoak.

Garbiñe Larrearen eskutik



Sendabelarre dakitena
2. argitaraldia
25 €

45 sendabelarren propietateak ezagutzeko eta osasunaren mesedetan erabiltzeko informazio zehatza aurkituko duzu liburu honetan.



Sendabelar Baratzea
14 €

12 sendabelarrekin sendatzeko baratzea lantzeko proposamena egiten dizugu liburu biribil honekin.

EUSKARA OKUPATU, MARISOLASTEKO

Urtez urte eta belaunaldiz belaunaldi hitzak aldatzen doaz, eta horiekin batera hitzen esanahia. Modu asko daude norbere burua izendatzeko: *soropil*, *biziosa*, *marioker*, *ez-binario*, *maritxu*, eta beste. Pertsona sexu-genero disidenteen beharrak asetzeko euskara zikintzeaz eta euskaraz birjabetzeaz mintzatu dira Maiana Etxeberri Keufterian, Amaia Alvarez-Uria eta Kepa Yecora Jimenez militante sexu-genero disidenteak.

 OLAIA L. GARAIALDE  ZOE MARTIKORENA

Nola uztartzen dira euskara eta sexu-genero disidentziak? Euskarak pertsona sexu-genero disidenteen beharrak asetzen ez baditu zein baliabide daude hizkuntzaz birjabetzeko? Zer nolako eragina daukate akademiak eta zuzentasunak? Horretaz mintzatzeko elkartu dira Maiana Etxeberri Altxalili kolektiboko kidea (Behaskane-Laphizketa, Nafarroa Beherea, 1993), Amaia Alvarez euskal filologoa (Bilbo, 1978) eta Kepa Yecora EHGAM Euskal Herriko Sexu Askapenerako Mugimenduko kidea eta euskara irakaslea (Iruñea, 1964). Euskarak gizartearen beharrak asetzen ez dituenean, euskara okupatu eta bere egiteko hiru bide nabarmendu dituzte: jada existitzen diren hitzak, baina ezagutzen ez direnak; euskara ez den beste hizkuntzetatik etortzen direnak; eta pertsona sexu-genero disidenteek asmatutakoak. “Hirurak garrantzitsuak dira, baina aztertu behar dugu ea orain

arte dauden hitzek gure beharrak asetzen dituzten”, azaldu du Yecorak.

Euskal Herriko LGTBIAQ+ mugimenduan erabiltzen diren hitz asko gaztelaniatik, frantsesetik edota ingelesetik hartutako maileguak dira. Alvarezek, esate baterako, gaztetan, *gay* eta *lesbiana* erabiltzen zituen bereziki, baina belaunaldi berrien eraginez *bollera* –*guine* frantsesez–, *marika*, *bibollo*, eta beste hasi da erabiltzen. June Fernández kazetariarekin batera *Nola esan/izan bollera euskaraz?* proiektuaren bidez euren burua eta praktikak euskaraz izendatzeko hitzak bilatu, sortu eta jaso dituzte. Bizipenak jasotzeaz gain, hiztegi bat sortu dute kolektiboetan sortzen diren hitzekin: “Maileguak erabiltzen ditugu hitzak falta zaizkigunean edo ez ditugunean hitzak ezagutzen. Maileguak hartu beharrean, zergatik ez ditugu sortzen?”. Hori da euren buruei galdetzen ziotena proiektuarekin hasi zirenean.

Asko dira hiztegian jaso dituzten hitzak. *Marioker* Alvarezen proposamena

da *kuir* pertsonak izendatzeko. *Soropila*, berriz, Katalinak bizikletan taldearen ekarpena da *bolleraren* euskarazko alternatiba gisa erabiltzeko-. Alvarezek azaldu digu: “Katalinak bizikletan sortu genuen emakumeentzat eta *bibolloentzat* espazio seguru bat sortzeko. Bertan, hala nola mekanika tailerrak egiten genituen. *Sororitate* eta *opila* hitzekin jolastuz sortu genuen. Ibilbide laburra izan zuen, baina Iruñera iritsi zen”. 2010. urtean sortu zuten hitza, baina gaur egun ez dute erabiltzen. *Lesbisitaria* harreman lesbiko baten esperientzia izateko gogoia edo irrika duen emakume heterosexuala izendatzeko Alvarezen proposamena. Gaztelaniazko *heterocuriosa*-ren baliokidea da. Beste hitz bat da *bekatorosak*: bekatoriak esan nahi du, eta Dom Campistron marrazkilariren liburu grafikoaren izenburua da. LGTBIAQ+ pertsonak izendatzeko erabiltzea proposatzen du erlijio katoliko hegemonikoak sustatzen duen bazterkeriaren aurreko erantzun *kuir* gisa.



Bizkarrez Amaia Alvarez-Uria eta Olaia L. Garaialde.
Haien aurrean Kepa Yecora eta Maïana Etxeberri.

HAUTU POLITIKO BAT

Yecorak azaldu duenez, 60ko hamar-kadan, batez ere *homosexual* hitza erabiltzen zuten, eta poliki-poliki *gay* eta *marikoi* hitzak bereganatzen hasi ziren: “Urteekin ikusi dugu hitzek zer-nolako balio politikoa duten, eta irainak birjabetzen hasi gara”. Orain, modu askotara adierazten dute nor diren, eta hala nola *marikoi*, *maritxu*, *marimutil*, eta *mario-ker* erabiltzen hasi dira: “Orain eroso sentitzen naiz neure burua *maritxu* izendatzen, hautu politikoa delako”.

Baserrri mundu “klasikokoa” da Etxeberri, eta horren ondorioz urte asko eman ditu bere burua izendatzen: “Euskal Herrian ez nuen goxotasunik aurkitzen neure burua deskubritzeko. Hori dena deskubritzen joan naiz sexilioan”. Duela gutxi itzuli da Euskal Herrira, eta *lesbiana* zein *bollera* hitzak baliatzen ditu. Ipar Euskal Herrian *lesbiana* hitzak Hego Euskal Herrian daukan adina indar duela nabarmendu du: “Ipar Euskal Herrian eta Frantzia lesbianen izatea oraindik tabu handia da eta oso negatiboa da”.

Izan ere, *kuir* mugimendua urratsez urrats heltzen ari da Ipar Euskal Herrira: “Gazteria tokia eta askatasuna hartzen ari da”. Etxeberriren ustez, azkeneko hamabost urtetan leku batzuk asko aldatu ez diren arren, “txikinaka” kolektiboak eta espazioak sortzen ari dira: “Oso manera politean eta maitasunez beteta heldu dira, eta oso eragin polita daukate”. Horren adibide dira, besteak beste, Bekat’uros besta eta Altxalili eta Bitxi-bitxi kolektiboak.

Bekat’uros eguna da iaz Atharratzen (Zuberoa) lehenengo aldiz egin zuten LGTBIAQ+ besta, eta bertan aurkeztu zuten *Altxalili show* ikuskizuna. Altxalili landa eremuan sortu den LGTBIAQ+ kolektiboa da, eta identitateak zalan-tzan jartzeko espazio bat eta helduleku bat da Etxeberrirentzat: “Galdeketa partekatzen ditugu, eta hitz jokoak egiten ditugu euskara gureganatzeko eta hitzekin jolasteko; hala nola *mileskuir*, *milesker* esateko eta *onegouine-gouine* da *bollera* frantsesez- on egin esateko”. Horrez gain, ez-binarismoan “lasaiago” kokatzeko lekua ere bada Altxalili: “Mugekin jolasten dugu eta kabaretak errepresentazioak sortzen laguntzen digu. Batzuetan niregana hurbildu dira ez dakitelako emakumea edo gizona naizen, eta hori altxor bat da niretzat”.



“Galdeketa partekatzen ditugu, eta hitz jokoak egiten ditugu euskara gureganatzeko eta hitzekin jolasteko”

Maiana Etxeberri

XOKA: HITANO EZ-BINARIOA

Euskarak genero binarismoari ihes egiteko tresnak dituen arren, nabarmendu dute beste hizkuntzek bezala generoa markatzen duela. Izan ere, euskaraz ere badira zenbait hitz genero markak dituztenak; hala nola *ahizpa*, *neba*, *arriba* edo *anaia*. “Euskaraz *senide* eta *haurride* ditugu”, esan du Alvarezek. Yecorak aldiz, *arrahizpa* erabiltzen du batzuetan: “Ez *arriba* eta ez *ahizpa*”. Genero markarik gabeko euskararen bila ari zirelarik, xoka asmatu dute EHGAMeko kideek. Hitano ez-binariora sortzeko proposamena da, eta helburua da tokaren *k* edo no-karen *n* beharrean, *x* erabiltzea. Hau da:

“Gustatu zaidak” edo “gustatu zaidan” erabili ordez, “gustatu zaidax” erabiltzea pertsona ez-binarioekin.

“Geroz eta jende gehiagok izendatzen du bere burua ez-binario, eta gure kezketako bat izan da hizkuntza gaur egungo moldeetara egokitu behar dela. Espainolez, italieraz eta katalanez formulak bilatzen ari dira, eta geu ere bai”, azaldu du Yecorak. Hala ere, bidea oraindik “luzea” dela uste du. *Xoka*. *Jite disidenteak* jardunaldiak egin zituzten Iruñeko Laba espazioan, sexu-genero disidentziak eta euskara uztartzeko, eta bertan xoka aurkeztu zuten: “Bazterrak mugitu ditugu eta erresistentziak daude, baina besteek zer esaten dutena ikusita ere, beste batzuetan bezala, ez dugu amorerik emango”.

Gaztelaniaz *e* hizkiaren bidez erabiltzen da genero neutroa, frantsesez *iel* eta katalanez *i*. “Oso testuinguru politiko eta disidenteetan erabiltzen da *iel*”, azaldu du Etxeberri. Horregatik, ez da ausartzen zenbait eremutan erabiltzen: “Nire burua *bollera* eta *lodi* izendatzea zaila da, eta horrek jendearekiko lanketa handia dakar. Ez-bitartasuna gehituko banu, pisu ainitz izanen zen”. Neutroa erabili beharrean, esaldien ordena aldatzen ere saiatzen da, genero markarik gabeko formulak aurkitu arte.

HITZ JOKOETATIK PRAKTIKARA

Proposamen asko daude mahai gainean, eta Amaia Alvarezen arabera, “gutxinakak” ikusiko da zeinek egiten duen bidea:



“Orain da momentua ikusteko zein proposamenek pizten digun arreta, zein probatu nahi dugun eta zeinek egiten duen bidea. Buru eta bihotz oso politak ari dira pentsatzen”. *Marioker* hitza sortu du Alvarezek *kuir* pertsonak definitzeko, eta dagoeneko hitza bere bidea egiten ari da: “Oso polita izan da *mariokerrak* erabiltzen dela ikustea”. Kanean erabiltzeaz gain, liburu forma ere eman diote *Mariokerra: Nola esan/ izan bollera euskaraz?* liburuaren bidez.

Hitz batzuek liburu forma hartzen dute, eta beste batzuek, aldiz, kanta itxura. Horren adibide da, Yogurinha Borovak eta Albina Stardustek elkarrekin egin duten *Tuli-tuli* kanta. Yecorak kantaren lehen zirriborroan parte hartu du. *Maritxuek* ligatzeari erreferentzia egiteko *tuli-tuli* esaten zuten 1980ko hamarkadan.

EHGAMen *mari* aurrizkia askotan erabiltzen dutela esan du Yecorak: “*Maritopaketak, marimenua, maribazkaria* eta beste”. Horrekin aniztasuna erakutsi nahi dute: “Ez da soilik *marikoia* izatea;

“Euskara zikindu behar dugu, eta gero ikusiko dugu zerk duen indarra”

Amaia Alvarez Uria

mariokerrak, maritransak eta abar izan gaitzke”. Altxalilin, aldiz, *kuir* atzizkia erabiltzen dute; hala nola, *mileskuir* eta *korrikuir*.


EUSKALTZAINA HILTZEKO BEHARRA

Hitz batzuek bidea egiten dute, eta beste batzuek ez, baina, horretarako, “es-

perimentatu” eta “jolastu” behar dela uste du Alvarezek: “Euskara zikindu behar dugu, eta gero ikusiko dugu zerk duen indarra”. Horretarako, euskaldun orok duen euskaltzainari erreparatu beharra dago: “Asisko Urmenetak esaten duen bezala, euskaltzain bat dugu barruan beti gogorarazten diguna arauak bete behar ditugula”. Horrek, maila indibidualean zein kolektiboan “tentsio handia” eragiten duela uste du: “Barruko euskaltzaina hil behar dugu”.

Bat egin du horrekin Yecorak, eta nabarmendu du “benetan freskoa” den hizkuntza lortzeko zer-nolako hitzak eta moldeak erabili aztertu beharra dagoela: “Ez diezaiozun men egin beti Euskaltzaindiari; hizkuntzek ez badituzte gure beharrak asetzen okupatu beharko ditugu”. Horrekin batera, espazioei ere erreparatu behar zaiela uste du: “Toki hurbilak ere okupatu behar ditugu. Sexilioa normalean gune handietara egiten dugu, eta gune horietako hizkuntza nagusia ez da euskara”.

BABESLEA:




HIZKUNTZA

berean hitz egiten dugu

ORKLIN, konfortaren eta pertsonen segurtasunerako souzioetan munduko liderra izanik, hizkuntza berean hitz egiten dugu. Konpromiso sozialaren, zintzotasunaren, talde-lanaren, aniztasunaren eta iraunkortasunaren hizkuntzan aritzen gara... eta gainera euskaraz.

“Funtsezkoa ikusezina da begientzat”
Antoine de Saint-Exupéry



NOR

bakarreko saila

orainaldian lehenaldian	toka		noka		xoka	
ni	nauk	ninduan	naun	nindunan	nauk	ninduxan
hi	haiz	hintzen	haiz	hintzen	haiz	hintzen
hura	duk	zuan	dun	zunuan	dux	zuxan
gu	gaituk	gintuan	gaitun	gintunan	gaituk	gintuxan
haiek	dituk	zituan	ditun	zitunan	dituk	zituxan

NOR-NORI (HIRUGARREN PERTSONA)

ZAIDAK	ZAIDAN	ZAIDAX
ZAIAK	ZAIN	ZAIX
ZAIOK	ZAION	ZAIOX
ZAIGUK	ZAIGUN	ZAIGUX
ZAIK	ZAIEN	ZAIEX

Bat egin du horrekin Etxeberrik, eta gehitu du euskara elikatu behar dela iraganeko, oraingo eta etorkizuneko hitzekin. Gaineratu du barruko euskaltzainak “zinez” hil egin zuela txikitan: “Etxean frantsesez aritzen ziren, eta ikastolan ez nuen ongi pasa. Pentsatzen nuen ez nintzela ongi moldatzen euskaraz eta ez zela garbia”. Oso zapaldua sentitu da kolegiara arte, eta zapalkuntza “sobera bortitza” zenez, eskola utzi behar izan zuen denboraldi batez: “Zinez gorrotatu ditut euskara eta Euskal Herria, eta aldi berean, euskaraz bizitzeko gogotsu nintzen”. Beti izan du gatazka: “Euskal Herria maite dut eta euskaldun gisa bizi nahi dut, baina aldi berean hain zapaldua izan naizenez ezin naiz goxo eta errespetatua sentitu”.

Horregatik, baserri munduan Altxalili sortu izanak “on handia” egin dio eta hizkuntzarekin eta Euskal Herriarekin duen harremana lasaitzen lagundu dio: “Euskaraz bizitzen eta arnasten laguntzen dit. Ikaragarria da Altxalilik baserri munduko jendardean duen eragina”. Horrez gain, hitz berriak sortu, eta identifikatzeko formula berriak bilatzeko lekua ere bada kolektiboa.

EHUko irakaslea da Alvarez, eta esan du ikasleek euskara eskolara lotzen dutenez, hortik kanpo erdaraz egiten dutela: “Ez dira euskararekin identifikatuta sentitzen, eskolarekin lotzen dutelako”. Horregatik, uste du eskolaren eta euskararen arteko lotura apurto eta beste espazioetara zabaltzea behar dela: “*Mariokerrak* liburuarekin ikusi dugu militantzian geroz eta gehiago erabiltzen dela euskara”. Gaineratu

NOR NORK SAILA

	ni	hi	hura	gu	haiek
NIK	—	haut	diat / dinat dixat	—	ditiat/ditinat ditixat
HIK	nauk/ naum nauk	—	duk / dun dux	haugu	dituk/ditun ditux
HARK	naik / nain naix	—	dik/din dix	gaitik/ gaitin gaitix	ditik/ditin ditix
GUK	—	haugu	diagu/dinagu dixagu	—	ditiagu/dinitagu ditixagu
HAIEK	naitek/naiten naitex	haute	ditek/diten ditek	gaitiztek/gaitizten gaitiztex	ditiztek/ditizten ditiztex

EHGAMeko kide batzuek xoka asmatu dute, hitano ez-binarioa sortzeko proposamena da.

(Xokaren erabileraz):
“Bazterrak mugitu
ditugu eta
erresistentziak daude,
baina besteek
zer esaten dutena
ikusita ere, ez dugu
amorerik emango”

Kepa Yecora

du hizkuntzaz jabetzeko zenbait fase errespetatu behar direla: “Hitzak falta bazaizkit, asmatu edo beste hizkuntza batetik hartuko ditut, eta ez banaiz gai dena euskaraz egiteko, erdaraz busti eta zikinduko dut, pixkanaka erdara behar ez izan arte”.

Hitzekin jolasteko prozesua “natural” eta “oso plazeretik” ateratzen dela esan du Etxeberrik. Bat egin du Yecora: “Profitatzen dugu ongi pasatzeko eta irri egiteko. “Dantzatzen ez bada ez da nire iraultza” esaten da, ba guk ez badugu irritan egiten, ezta ere”. Gaineratu du pertsona sexu-genero disidentek “probokatzailak” izan direla beti: “Borroka da bidea ez, probokazioa da bidea. Norbanakoek egiten dutenean arrisku handiagoa dago, baina taldean gaudelarik indartuta eta ahaldunduta gaude. Asko miresten eta eskertzen dut Altxalilin egiten duzuen”. Horrekin batera, “maitasunez” egiten dutela esan du Etxeberrik. “Eta umoretik”, gehitu du Alvarezk. Irribarre artean eta *mi-leskuir* esanez agurtu dute elkar. ●

“ ”

Batasun estrategikoa lantzen ari gara Europako Alderdi Komunista sortzeko

Peio Ormazabal eta
Beñat Aldalur



INSURGENTE.ORG

Joan den abenduan aurkeztu zuten Euskal Herriko Kontseilu Sozialista (EHKS), Euskal Herrian Mugimendu Sozialista egituratzea helburu duen alderdia. Europar Alderdi Komunista eratzea dute helburu eta iraultza sozialista gauzatzea. Peio Ormazabalek eta Beñat Aldalurrek EHKS zer den eta zertan ari diren azaldu digute Azpeitiko Esklabetan, mugimenduak han okupatua duen eraikinean.

 XABIER LETONA BITERI

Diozuenez, “krisi kapitalista bete-betea” sortu da EHKS. Gaztetxo nintzenez petrolioaren krisiaren ondoren kapitalismoa “hil ala biziko krisian zegoen”; 1990eko hamarraldian ere, birmoldaketa eta langabezia itzelarekin, berdintsu, hiltzear zegoen. Geroago burbuilen leherketagatik hondoratu behar zen eta, azkenik, 2008ko finantza krisiarekin. Aldi bakoitzean, baina, bere burua berrasmatu eta gero eta indartsuago ateratzen da.

Beñat Aldalur: Kapitalismoak bere burua infinituki erregulatzeko mekanismoak baldin badauzka, horrek esan nahi

du erreformatu daitekeen sistema bat dela eta, beraz, perspektiba iraultzaileak pisua galtzen du bertan. Marxismoaren barruan etengabe errepikatzen dena da: zein punturaino ari da agortzen kapitalismoa? Zein puntura arte zuzendu dezake bere burua? Kapitalismoaren historia krisian sakontzearen historia bat da eta horregatik, 1970eko hamarkadan desindustrializazioaz asko hitz egingo zen, eta orain ere gaiak badu gaurkotasuna.

Mendebaldeko ikuspegitik begiraturatua, guk hitz egiten dugun lanaren zentraltasunaren galeraz. Horrek ez du esan nahi kapitalismotik automatikoki sozialismo-ra joko dugula, baina kapitalismoak bes-

telako gizarte eredu baterako baldintzak jartzen ditu. Beraz, krisiak hor daude eta kapitalismoak baditu, halaber, horiek leuntzeko mekanismoak krisi kapitalista atzeratzeko, hala nola, zorpetze masiboak, finantzarizazioa, gerrak, soldaten devaluazioak...

Peio Ormazabal: Krisiaz ari garenean ez gara ari kapitalismoaren berehalako kolapsoaz, baizik eta etengabe kontraesanak birsortzen dituen sistema bati buruz. Bere burua indartzeko moldeetan, austeritatea eta soldataren kontrako ofentsiba dira egun erabiltzen dituen mekanismo ikusgarrienetakoak. Horrez gain, ikusten dugu gerra testuingurua eta estatu auto-

ritarioaren joera ere handitu egin direla; kapitalak arazoak dituen une batean, potentzia inperialistak beraien artean lehiatzen dira irabaziak eurenganatzeko.

Orain arte GKS nabarmendu da Mugimendu Sozialistan. Gizarteko beste esparru eta adinetara heltzeko bidea da Kontseilu Sozialista?

P. O. Urte hauetan esparru zehatzei erantzuteko antolakundeak sortu ditugu, adibidez GKS gazteei erantzuteko eta Itaia generoari, edo Erraki eta beste hainbat. Kontseilu Sozialistak Mugimendu Sozialista osoaren bozeramailletza eta ikuspegi estrategikoa biltzen ditu. Orain arte erantzun ez ditugun arazoaren aurrean proposamenak egitea da bere helburua, eta finkatzen ditugun helburuen aurrean tresna egokiak abiaraztea.

Orain Kontseilu Sozialista eratu duzue, baina gero Alderdi Komunistaren unea ere etorriko litzateke zuen ikuspegian. Zein da Kontseiluaren funtzioa fase honetan?

B. A. Aurkeztu dugun Kontseilu Sozialista guretzat gaur egungo alderdi bat da. Dena den, guk erabiltzen dugun hizkuntza estrategikoan Alderdi Komunista ere badago, baina hori eratzeko zenbait aurrebaldintza bete behar dira eta une honetan ez gaude egoera horretan. Baldintza horiek honakoak dira: bat, Alderdi Komunistak hegemonikoa izan behar du langile klasean; eta bi, kapitalismoari hegemonia lehiatuko badio, alderdi hori nazioartekoa izan behar da. Kontseilu Sozialistak baldintzak jarri behar ditu egoera hori sortzeko.

Une honetan, batetik, langile klasean pobretze bat ematen ari da, eta bestetik, eskubide politikoak galtzen ari dira. Testuinguru horretan, langile klasea antolatzekeko erremintak ematea eta komunismoaren perspektiba hegemoniko bilakatzea da bere zeregina. Egiteko horiek betetzen baditu Alderdi Komunista bihurtuko gara, baldin eta horrek guztiak nazioarteko ikuspegia badu.

Nola egituratzen da EHKS? Nor da militante? Kuotak badaude? Boterea nola antolatzen duzue?

B. A. Printzipio nagusia militantzian oinarritutako proiektua da, alderdi politikoen ohiko profesionaltasun eta instituzionalizazetetik aparte. Hala ere, militantzia maila desberdinak daude eta proiektuari ekarpena egin nahi dion edozeini bere lekua egiten diogu. Lehenbizi eskualde



“ ”

Sozialdemokraziak orokorrean, eta ezker abertzaleak haren adierazpen hegemoniko gisa, fobia dio kritikari eta kritikak eraso gisa hartzen ditu

mailako kontseilu sozialistak sortu ginituen, eta ikusi dugunean nahiko indar dugula, Euskal Herri mailako kontseilua. Zazpi lurraldeetan dago egituratuta eta eskualdeka antolatuta, nahiz eta eskualde guztietan ez dugun indar berdina.

P. O. Tokian tokiko arazoei erantzuten saiatzen gara, adibidez lan munduko autodefentsa sareak sortu ditugu, soldaten kontrako ofentsiba horri aurre egiteko; edo etxebizitza sindikatuak langile klaseak dituen hainbat arazori aurre egiteko. Finantzaketari dagokionez, gure burua autofinantzatzen dugu: diru ekar-



Eibarko Astelena pilotalekuan egin zuten EHKsren aurkezpena iragan abenduan.

penak jasotzeko kanpainak, txosnak, borondatezko ekarpenak, bonu laguntzak, zozketak... Baina dirua ez da ezinbestekoa militantziarako eta ulertzen dugu bakoitzak bere denboraren zati bat ematea proiektuarentzat nahikoa dela proiektu honetako militante izateko.

Eta boterea? Nola erabakitzen duzue?

B.A. Zentralismo demokratikoaren bidez. Batetik, oso garrantzitsua da printzipio demokratikoa, demokrazia ulertuta parte-hartze politiko kualitatibo gisa; baldin eta nahi badugu gizartearen oso-

tasunari erantzungo dion mugimendu bat eratzea, hori ezin da pertsona gutxi batzuen esku egon, baizik eta militante sare zabal eta kualifikatuak parte hartu behar du horretan. Eta aldi berean, zentraltasuna ere eduki behar du, gauza orokorreari erantzuteko eta kolektibo guztiak parte har dezan.

Oso uzkurak zarete koadroen profesionalizazioarekin eta haiek soldatapekoak izatearekin. Zuek badituzue liberatuak?

B.A. Guretzat oinarritzko printzipioa da

jardun politikoa ez izatea soldatapeko lanaren menpekoa, eta prozesu politikoaren motorra konpromiso politikoan eta militantziaren eskuzabaltasunean oinarrituta egotea. Gure egungo dinamika ez da liberatuekin egiten, baina ez dugu baztertzen funtzio zehatzen baterako liberatuak izatea, adibidez komunikaziorako edo abokaturen bat behar badugu, hau da, oso funtzio tekniko zehatzak gauzatzeko.

P. O. Historiari begiratuta, mugimendu iraultzaile askoren usteltzeko eta asimilatzekeo modu bat izan da soldatapeko dinamika. Beraz, guk ere ez dugu uste gure aurrekoak baino hobetoak garenik eta horregatik jartzen dugu zentroan militantearen figura.

Borroka sektorial guztiak klase borrokaren mende egon behar dutela diozue, eta antolaketa sozialistaren barruan. Horrek, batzuetan talka dakarkizue beste sektore batzuekin, hala nola feminismoarekin. Posible da bakoitzak bere bidea egitea talka egin gabe?

B. A. Hainbat ikuspegi ideologikorekin talka egin dugu, baina beste batzuekin elkarlanean ari gara, nahiz eta seguruenik gauza guztietan ez gauden ados haiekin. Palestinaren auzian elkarlanean ari gara beste batzuekin, ekologismoaren munduan ere bai, emakumearen alorrean...

P. O. Etxebizitzaren arazoari erantzuteko, Diru Sarrerak Bermatzeko errenta dela eta manifestazio batera deitu genuen hamarnaka eragilerekin... Etengabe eta jende guztiarekin talkan gauden ideia hori interesatua da. Irekita gaude elkarlana eta, baldintza batzuk betetzen badira behintzat, ezinbestekoa da. Azpeitian duela bi aste lurraren defentsan egindako manifestazioan, adibidez, han izan ginen.

B. A. Sozialdemokraziak orokorrean, eta ezker abertzaleak haren adierazpen hegemoniko gisa, fobia dio kritikari eta kritikak eraso gisa hartzen ditu. Guretzat, aldiz, kritika ezinbestekoa da modu arrazional batean egiten bada. Azken urteetan gure oinarria finkatzeari eman diogu denbora luzea, baina orain beste eragile batzuekin elkarlanean aritzeko unea ere bada, eta hori ikusten ari da.

Talkarena aipatzen dut besteak beste zuek proletariotzaren alderdia eta burgesiaren alderdia kontrajartzen dituzuelako. Proletariotzaren alderdian zuek behintzat bazaudete eta burgesiaren ezkerreko beste

sektore batzuk eta hainbat esparru sektorial ere bai. Ikuspegi horretatik talka ia ezinbestekoa da, edo?

B. A. Eremu sektorialak ez nituzke sartuko burgesiaren alderdian... Edozein modutan, banaketa hori ulermen orokorrerako ikusmolde bat da. Funtsean, esaten dugu instituzioek egikaritzen duten eremua dagoela, instituzioak kapitalismoa erreproduzitzeko sistema moduan uler-tuta, eta horri aurre egiteko beste bloke bat eratu behar dela, non gu ere kokatzen garen. Langile klaseko kidez osatuta dauden ehunka eragile eta kolektibo daude eta horiek bidelagun izatea gustatuko litzai-guke, izan momentuko gauzetarako edo izan aliantza estrategikoetarako.

P. O. Burgesiaren alderdiaz ari garenean instituzioen kudeaketan ari diren alderdi politikoez ari gara, zeintzuek kapitala erreproduzitzeko beharrezko neurrietan hartzen parte hartzen duten. Hori ez da une oro estrapolatzen gainerako eragile sindikal eta sozialetara.

“ ”

Etengabe eta jende guztiarekin talkan gauden ideia hori interesatua da. Irekita gaude elkarlanera eta, baldintza batzuk betetzen badira behintzat, ezinbestekoa da

Iraultza sozialista egungo estatuetatik haragoko ikuspegi batean kokatzen duzue, adibidez Europa mailan. Horren arabera, Europa mailako Alderdi Komunista sortu beharko litzateke denborarekin, eta antolaketa horren barruan legoke Euskal Herriko Kontseilu Nazionala? Zein litzateke bakoitzaren funtzioa?

B. A. Prozesu horrek printzipio unibertsal batzuk ditu, baina egoera partikularrei ere arreta jarri behar die. Beraz, gure ustez, komunismoak izan behar du Internazional baterako nahia, eta uste dugu datozen urteetan emango direla urratsak norabide horretan. Hala ere, lurralde eta nazio bakoitzeko adierazpen zehatzak ere kontuan hartu behar dira eta, adibidez, Espainiako Estatuko na-



Beñat Aldalur, ezkerrean, eta Peio Ormazabal Azpeitiko Esklabetako sarreran eserita.

zio zapaldueri antolaketa propioa ematen zaie, Herrialde Katalanetan, Galizian edo Euskal Herrian. Eta prozesu hori Europa mailan gorpuztu ahala ikusi beharko da zein forma hartzen duen.

Hori zuen ikuspegia da edo Horitzó Sozialista (Herrialde Katalanak) eta sortu berri den Espainiako Estatuko Coordinadora Juvenil Socialistarekin partekatutako ikuspegia?

P. O. Perspektiba partekatua da eta, Mu-

gimendu Sozialista eratzeko bidean, indarra hartzen ari da Herrialde Katalanetan, Euskal Herrian eta Galizian ere bai.

Europan ere ari dira sortzen ikusmolde hori duten mugimenduak?

B. A. Ari dira bai, baina, logikoa den bezala, batez ere eragiten ari gara gertuen dauzkagun lurraldeetan. Errazagoa da Burgoseko gazte batzuek Euskal Herriko gazteek egin dugun hausnarketa partekatzeari, Alemaniako batzuek baino. Ditugun

anaitasun edo ahizpatasun harremanengatik katalanekin erraza izan da, estatuko beste lurralde batzuetan ere gertatu da eta Portugalen ere badaude prozesu honetara batzeko nahia dutenak. Lana ondo egiten badugu prozesu hau epe motz eta ertainera Europa osoan hedatuko dela uste dugu.

Ulertzen dudanez, Europako Mugimendu Sozialista berri horren epizentroa Euskal Herria eta Espainiako Estatuak dira.

B. A. Gaur gaurkoz bai, eta beste lurralde batzuekin harremanetan ari bagara ere, oraindik ez dago ezer zehatzik, Portugalekin ez bada.

P. O. Batasun estrategikoa lantzen ari gara eta ez aldebiko harreman soila. Oinarri sendoarekin eraman nahi dugu prozesu hori eta horrek bere denbora eskatzen du, baldin eta, helburuetan diogun moduan, Europa mailako Alderdi Komunistaren lehen kimua sortuko badugu.

Oso gaurkoa den beste gai bat: planetaren suntsipena. Diozuenez, irtenbidea bakarrik etor daiteke proiektu sozialistaren eskutik, baina jakina, oso gai premiazkoa da, iraultza sozialistaren zain egon behar badugu, akaso jai dugu. Zein urrats orokor har daitezke gaur egunetik hasita?

P.O. Kapitalismo berde baterako urratsak emanda, trantsizio energetiko deitzen duten hori bultzatzen ari dira instituzioetatik, baina karbono isuriari buruzko datuak gero eta okerragoak dira. Prozesu hori ez da benetan egiten ari ekosistemen eta naturaren babeserako, baizik eta zenbait sektore enpresarialen irabaziak handitzeko. Beraz, natur baliabideak modu arrazionalen bideratuko dituen sistema bat behar dugu, eta hori kapitalismoaren barruan egitea ezinezkoa da, kapitalismoak bai ala bai irabazia bermatu behar duelako. Horregatik salatzen dugu trantsizio energetikoaren fartsa.

B. A. Uste dut ekologismoaren parterik handienak garbi duela kapitalismoaren barrutik ezin zaiola aurre egin naturaren suntsipenari. Hori aitortuta, ez dago argi zein izan behar duen kapitalismoaren ondorengo egoera hori, baina gure ustez hori komunismoa da. Jakina, honek guztiak premia handia du, sar gaitezkeelako atzerabiderik ez duen egoera batean, eta orduan bestelako gizarte bat eraikitzeko baldintzak ere kolokan jartzen direlako. Beraz, kapitalismoa azkar amaitu behar dugu, bestela hondamendi are handiago batera eramango gaituelako.



Urtarrilaren hasieran Ikerketa Sozialisten Institutua sortu zuten. Ezkerretik eskuinera: Txaber Ormazabal, Aitor Bizkarra eta Marina Segovia.

“ ”

Perspektiba partekatua dugu eta, Mugimendu Sozialista eratzeko bidean, indarra hartzen ari da Herrialde Katalanetan, Euskal Herrian eta Galizian

Ekologismoaren barruan bada eztabaida handia desazkundera irtenbidea den ala ez. Zuek nola ikusten duzue?

B. A. Argi dago gizarte antolaketa ereduak aldatu beharko direla, besteak beste kontsumo ereduak, baldin eta naturarekin eta baliabideekin dauzkagun harremanak jasangarriak izango badira. Alde horretatik, desazkundera buruzko hainbat ikuspegi daude, batzuen ustez desazkundera azkar egin beharreko zerbait da eta, beste batzuen ustez, hori proiektu politiko batekin lotuta izango da, non gizarte berri bat sortzen den neurrian egokitzen joango den. Gu bigarren perspektiba horretan kokatzen gara eta erantzun zehatzik ez dugu, baina prozesuak aurrera egin ahala sortuko dira erantzun zehatzak.

Zuen zereginen artean jartzen duzue “ekoizten denaren banaketaz eta kontsumoaz arduratzen diren

mekanismo guztien kontrola eskuratzea”. Zer esan nahi du horrek egunerokotasunean?

P. O. Gizarte antolaketa berri batek arrakasta izango badu, bere funtzionatzeko forma eta boterea bi esparru horietan antolatu behar dira. Hau da, ekoizten den hori ez da soilik modu ekitatiboan banatu behar; ekoizten dugun hori transformatu behar dugu gehiengoaren ongizateari begira, eta ez interes pribatuari begira. Hau da, osasunak nolakoa izan behar duen, hezkuntzan zein lan mota egin behar den, industria nola antolatu behar den eta zer ekoizti behar duen... Horretan guztian ere jarri behar du arreta mugimendu komunistak eta ez soilik lan baldintzen defentsan. Azken finean, langile mugimendu antolatuak, gero eta gaitasun handiagoa izan beharko luke gizartean bere ikuspegi nagusitzeko burgesiaren eta kapitalisten kontra.

B. A. Gure ustez, modu orokor batean esanda, egungo gizarteak baditu baldintzak pertsona guztien ongizaterako, baina horretarako ezinbestekoa da nazioarteko oligarkiari boterea kentzea eta eskura dituen bitartekoen gaineko kontrola eskuratzea. Beraiek izaera pribatua ematen diote antolaketa horri, partikularra eta berekoa, eta guk antolaketa demokratikoa eta unibertsala eman nahi genioke. Gure ustez, gaur egun munduan badaude baldintzak soldatapeko lanetik aparte pertsona guztien ongizatea bermatzeko, eta hori egingo litzateke kontsumo funts handi baten bidez. Hau da, jendeak lan egiten jarraitu beharko du, baina ez du izango lanarekiko derri-gorrezko menpekotasunik. ●

Alejandra Burgos eta Karla Guevara
El Salvadorko trans aktibistak:

“LGTBI komunitatea eta emakumeak beti egon gara salbuespen egoeran”



Pasa den otsailaren 24an Egia, Justizia eta Erreparaziorako ekitaldi bat antolatu zuten Bilbon, Mugarik Gabe erakundeak, Bizitu Elkarreak, Feministaldek, Mujeres del Mundok, Zehar Errefuxiatuekin elkarreak eta Colectiva Feminista Para el Desarrollo. Hiru indarkeriak ardazu zuten ekitaldia: emakume migratzaileenak, Euskal Herriko emakumeenak eta emakume transenak. Bertan izan ziren ikertzaile eta lekuko gisa Karla Guevara Colectivo Alejandriako kidea, eta ikertzaile eta lehenengoaren laguntzaile gisa Alejandra Burgos, Colectiva Feminista para El Desarrollo kidea. Biak salvadortarrak. Hauteskunde osteko testuingurua izaki, Euskal Herrira ekarri zituen arazoak beste galdera sortu zituen euren herrialdeak. Bi kontu horiek ardazu dute elkarrizketa.

 MARIA ORTEGA ZUBIATE  PELLO MAUDO HERRERO / ARGIA CC BY-SA

Epaimahai sinboliko baten parte zaretelako etorri zarete Bilbora. Zer dela eta hartu duzue horretan parte?

Alejandra Burgos: Colectiva Feminista Para El Desarrollo, Mugarik Gaberekin batera, urtebetetik gora daramagu babes integral feminista lantzeko prozesu batean murgilduta. 2013 inguruan ho-

rrelako beste epaimahai batean hartu genuen parte, abortuagatik kriminalizatutako emakume salvadortar baten kasuan. Aurten, El Salvadorko emakume transen egoera plazaratzeko aukera ikusi dugu, jasaten dituzten indarkeriak osatzea garrantzitsua dela uste baitugu; baina El Salvadorren ezin dezakegu egin.

Horregatik, hemen egin nahi dugu, justiziari ekarpen hori egiteko. Proiektu honen hainbat lan ildo ditu, babes integral feminista da euretako bat. Hemen gaude proposamen honetaz ikasteko, eta ni, batez ere, Karla laguntzeko etorri naiz, bera lekuko baita.

Karla Guevara: Beti esan izan da emakume transek ez dugula indarkeria matxista jasaten, gurea bazterkeria edo estigma baizik ez dela. Baina ez da horrela, jaiotzatiko indarkeria jasaten dugu. Emakume transak indarkeria sistema amaigabeen bizi gara. Sistema patriarkal horrek, Erdialdeko Amerikako herrialdeetan are konplexuagoa denak, gorroto du femeninoa den oro. Emakume zisgeneroek jasaten duten indarkeria emakume izateagatik jasaten dute; emakume transok jasaten dugun indarkeria sistema patriarkalaren transgresore garelako jasaten dugu, gizon izendatzearen “pribilegioa” eman zigulako. Transgresio hori barkaezina da gure sisteman. Ez da bullyinga, indarkeria instituzionala da. Hona etortzearen ideia da, hain zuzen ere, indarkeria horiek erakustea eta osatzea, era sinbolikoan.

Urtebetetik gorako prozesua izan da. Zelakoa izan da?

K. Guevara: Prozesuaren parte izan da emakume transak elkarrizketatzea, berriek jasandako indarkeria matxistak



Alejandra Burgos, Colectiva Feminista para El Desarrollo kidea: "Gure eskubideak ez dira beti izan ziurrak, horregatik ez dugu estatuan jartzen gure esperantza osoa: gure esperantza dira kolektibitatea eta gizarte sare komunitarioak".

aztertzea eta patroï komun bat zehaztea. Elkarrizketa asko egin dizkiegu emakume transei, horietako bat neu izan naiz. Ni nire lekukotza ematera nator, baita nire kideena ere.

A. Burgos: Lehenengo bakarkako elkarrizketak egin genituen, eta gero kolektiboak. Bertan izandako kide askok sekula ez dute pentsatu zer izango litzatekeen erreparazioa eurentzat. Oso eskertuta nago aukera honengatik eta Karlak bere istorioa kontatu nahi izan duelako, ez baita erraza izan. Eta oso pozik nago erreparazioa zer den pentsatzen hasi gaitezkeelako.

Zer da, bada? Zertan lagundu dezakete epaiketa sinbolikoek?

K. Guevara: Indarkeria matxistek eragina dute bizitzako hainbat eremutan. Lehenik eta behin osatzea behar da. Estatua osatzearen arduraduna denean eta ez duenean hori ziurtatzen, mota honetako epaiketek egiten dute erreparazioa: esaterako, hil zituzten emakume

"2022ko abuztuan epaimahaiak izen eta genero aldaketak onartu zizkidan. Hiru urte horiek indarkeriaz betetakoak izan ziren"



transen izenean egindako eskulturak edo izendatutako kaleak. Sinbolikoa da, baina eragin handia du gizartean eta komunitatean.

A. Burgos: Guk egin ditugu horrelako saiakerak. Iaz egin genuen *Manuelarentzako Justizia Herrikoia Jaia* izena eman genion ekimena. Emakume hori kriminalizatu zuten abortuarengatik, ondo diagnostikatu gabeko minbiziaren ondorioz gertatu zena, eta estatuen zain-

tzapean hil zen. Erdialdeko Amerikako Giza Eskubideen Epaimahaiari aurkeztu genion kasua eta El Salvadorko estatua zigortu zuen. Baina, hori horrela ere, estatuek ez du publikoki onartu injustizia hori. Horregatik, guk bere familia lagundu nahi genuen. Estatuaren errua izan zela publikoki onartzea osatzeko bidea izan da familiarentzat. Marko horretan, hemengo epaimahaiaren parte hartu nahi genuen, El Salvadorko emakume tran- sen justizia osatzailea lortzeko.

El Salvadorko Gobernua aipatu duzue. Momentuotan, egoera politikoa konplikatu da: bi urtez salbuespen egoeran egon ostean, Nayib Bukele presidentek bigarren aldiz irabazi ditu hauteskundeak, gehiengo absolutuz. Zelan dago egoera?

A. Burgos: Emaitzek ez gaituzte harritu, baina bai sumindu. Denbora asko da El Salvadorren ez dagoela oreka demokratikorik. Eskubideen arloan aurrerapau-

so batzuk egon ziren mugimendu askoren lanari esker, baina azken urteetan atzerapen demokratikoak egon dira, eta hori gure agendetarako, agenda feminista eta LGBTI-erako, txarra da. Horregatik, guretzat garrantzitsua da egoerari buruz berba egitea: bisita aprobetxatzen ari gara erakunde askorekin batzeko eta gure kezkak azaltzeko, baina baita deialdi bat egiteko ere, mugimendu internazionalistak ez dezan El Salvador atzean utzi.

K. Guevara: Datuek kontakizuna hiltzen dute, eta gobernuak eraiki duen narritiba deseraiki behar dugu. Feministek, LGBTIQ+ komunitateak eta ekologistek daramagu borroka honen gidaritza, guk daukagu hau salatzen boterea. Hauteskundeen emaitza irregulartasun askoren ondorio da: diputatuen kopurua aldatu dute, botoen zenbaketa sistema ere aldatu dute, udalerririk 262tik 44ra murriztu dituzte... eta horrek alderdi nagusiei laguntzen die. Horrez gain, kanpainan ere egon dira irregulartasunak: gainontzeko alderdiek ez dute finantziatuziorik izan, Nuevas Ideasen finantziario bideak ez dira ezagutzera eman, funts publikoak erabili dituzte –janariz betetako saskiak banatu dituzte, 2021eko diputatuen hauteskundeen aurretik ere egin bezala–.

Baina hori guztia alde batera utzita, 2,7 milioi pertsonak eman diote botoa: bertan zein atzerrian bizi direnek. Horrek esan nahi du Bukelaren alderdiak salvadortarren %30en babesa izan duela, eta horrek aldatzen du kontakizuna. Atzerriko boto asko dago El Salvadorren, hain zuzen ere, kanpaina oso handia egin duela atzerrian, horretarako baliabideak izan dituelako. Bukele esportaziorako produktu bihurtu da: dena aldatzen ari dela dio, horixe sinetsi dute erbestean bizi direnek ere. Baina El Salvadorren muturreko pobrezia 4 puntu igo da: %8tik gorakoa da. Igoera ekonomikoa ez da gauzatu: iaz %2 ingurukoa izan zen, Erdialdeko Amerikako baxuena.

Hauteskundeak salbuespen egoera betean izanda, eraso ugari salatu dituzte giza eskubideen defendatzaileek.

A. Burgos: Salbuespen egoerak giza eskubideen krisia eragin du: indarkeria soziala izatetik estatuala izatera pasatu da. Emakumeen aurkako indarkeria eta indarkeria sexuala ez dira ezer berria, komunitateen memorian idatzita dau-



“Zaila da pentsatzea aurrerapausoak eman daitezkeenik abortuan, gero eta posizio fundamentalistagoak dituen gobernu dagoenean”



de Gerra Zibiletik; iraganera itzultzea da. Mugimendu ekologista, feminista eta LGBTI-aren aldekoa emakume aurpegi duten gizarte mugimenduaren hiru adar gara: ez da kasualitatea estatuaren erasoetako asko emakumeen aurka izatea. Hain zuzen ere, salbuespen egoera mugimenduotako kideak mehatxatzeko erabiltzen ari dira. Gutxienez 1.176 eraso egon dira defendatzaileen aurka, 39 defendatzaile eta hamazazpi sindikalista atxilotu dituzte. Estatutik estrategia

batzuk daude martxan giza eskubideen defendatzaileak nekarazteko. Oztopoak daude eta biltze askatasunaren aurkako mehatxuak. Horrek erakusten du komunitate mailako elkarrean desmobilizazioa eragingo duela.

El Salvador nazioartean ezaguna da abortuaren erabateko penalizazioa duelako. Zelan dago egoera momentu honetan?

A. Burgos: Abortuak guztiz zigortuta egoten jarraitzen du. Ez dago boterearen aurkako pisu bat herrialdean, eta horregatik ez dira lege proposamenak martxan jarri. Lege proposamen bat sartzen saiatu ginen aldiaren barrirak izan genituen zain. 2018an pertsona defendatzaileen defentsarako proposamena babestu genuen eta zuzenean artxibatu zuten. Zaila da pentsatzea El Salvadorren aurrerapausoak eman daitezkeenik abortuaren zigorrak kentzeari dagokionean, gero eta posizio kontserbadore eta fundamentalistagoak dituen gobernu dagoenean.

2013tik nazioarteko mugimendu fe-

ministak El Salvadorko Beatrizentzako justizia eskatu zuen, abortatzeko esku-bideari lotuta. Kasu hori gaur egun Giza Eskubideen aldeko Gorte Interamerikarrean dago, eta espero dugu aldeko sententzia jasotzea, berriro errepikatu ez dadin. Colectiva Feministatik horretan dihardugu lanean: sentsibilizazioa egiten dugu abortuaren penalizazioa zentzugabekoa dela erakusteko. 17entzako askatasunaren [Libertad para las 17] aldeko kanpainan ere hartu genuen parte: abortuagatik 30 eta 40 urteko kartzela zigorrak zituzten hamazazpi emakume ziren. Gaur egun bat ere ez dago kartzelan, eta borrokaren ondorio da hori. Ez da posible bizitzaren, emakumeen eta haurdunen gorputzen gain erabakiak hartzen jarraitzea erlijioan oinarritutako ideiekin.

Nazioarte mailan, agian, ez da hain ezaguna, baina gorroto delituen aurkako legea onartu zuten, eta genero identitatearen legea proposuan dago. Karla, bi lege proposamen horien parte izan zinen. Zelakoa da egoera LGTBI komunitatearentzat?

K. Guevara: El Salvador herrialde marxista eta ultrakontserbadorea da. Gobernu hau ere lehengoa baino askoz kontserbadoreagoa da, alderdia finantzatzen duten gehienak kontserbadoreak direlako. Ez dute onartuko kontu hauetan aurrerapausorik egoterik.

2015ean zigor kodeari erreforma batzuk egitea onartu zuten, urte oso basatia izan zelako: Francella Mendez [trans aktibista] hil zuten urtea izan zen. Horrek bultzatu zuen zigor kodeak gorroto delituak tipifikatzea. Genero identitatearen legearen proposamenarekin 2018an hasi ginen, baina 2016tik genbiltzan intzidentzia egiten saiatzen: ez genuen alderdi bakar baten erantzunik jaso. Ezkerreko alderdiak, FMLNk, argi esan zigun abortua eta LGTBIQ+ herritarren kontuak ez zituela ukituko. Alderdi horrek diputatu kopuru handi bat galdu zuenean erabaki zuen lege proposamena onartzea. Baina gaur egunera arte, lege horren inguruan egon den mugimendu bakarra izan da artxibatzea. Emakumeen eta LGTBIQ+ herritarren defentsen aldean zeuden lege proposamen guztiak bertan behera geratu ziren.

Momentu horretan, genero aldaketako eskaera asko geratu ziren artxibatuta. Tartean, zeurea.

“Inoiz ez dugu pentsatu izan migratzea, eta orain buruan daukagu. Estatu baten aurka zaudenean guztiz babesgabe zaude, oso desorekatua da borroka”



K. Guevara: Gu geure kontura hasi ginen epaitegietan izen aldaketa eskararak egiten. Lau eskaera egin genituen, lehenbizi, bertan behera utzi zituzten, gero, errekurtsioa jarri eta hiru onartu zituzten. Izan ere, El Salvadorren izena aldatzeko legerik existitzen ez bada ere, nazioarteko legedia egon badago, eta horiek ere badira El Salvadorko lege. Berriz esan ziguten ezin zutela hori mar txan jarri, ez genuelako frogarik eskaini; berriro egin genuen errekurtsioa eta orduan onartu zuten. 2022ko abuztuaren epaimahaiak izen eta genero aldaketak onartu zizkidan. Hiru urte horiek indarkeriaz betetakoak izan ziren, azterketa psikologikoak egitera bidali gintuzten, baita sozialak ere.

Epaileak agindutakoa tramite administratiboa zen San Salvadorko Udalarentzat, baina genero aldaketa ere bazezenez, udalak esan zuen ez zutela aldaketa egingo. Orduan, nahiz eta nik nire izen eta genero aldaketa irabazi nituen, ezin ditut aldatu San Salvadorko Udalak ez duelako hori egin nahi, sinesmen erlijioso eta moralengatik. Linbo juridikoan dago.

Biok aipatu dituzue fundamentalista erlijiosoak. Horien gorakada dago herrialdean?

K. Guevara: Izan daiteke. Nik sententzia irabazi nuenean sare sozialetan jarri nuen eta birala bihurtu zen. Talde erlijioso asko hori salatzen hasi ziren: presidenteari idazten zioten salatzeko, funtzionario publikoei... Bukelek botere osoa duenez, udalera deitu zuen, eta horixe blokeatzea erabaki zuen. Ez dago instituzionalitatekerik, fiskaltza ere bahituta baitago. Talde horiek eragin handia dute politika guztietan.

A. Burgos: Nik uste dut baietz, gero eta gehiago ikusten dira espresio erlijioso fanatikoak. Ez dut uste El Salvadorren

soilik gertatzen denik, mundu mailakoa dela esango nuke: krisi egoeran joera kontserbadoreenak areagotzen dira. Gure kasuan, analisisiek diote aliantza neokontserbadore batzuk daudela talde katoliko eta ebanjelikoen artean, gure agenden aurka. Euren asmoa da politikan eragitea. Bukelek boterea hartu zuenean artzain ebanjeliko batek be-deinkatu zuen. Eta jakina da badaudela aliantzak sektore ebanjelikoekin, Bukeleeren alde daudela. Fedearen eta herri sinesmen erlijiosoen instrumentalizazio handia dago.

Eta orain, datorren bost urteetan zer espero duzue?

K. Guevara: Inoiz ez dugu pentsatu izan migratzea, eta orain buruan daukagun kontua da. Estatu baten aurka zaudenean guztiz babesgabe zaude, oso desorekatua da borroka. Ez dugu baztertzeko errepresioa egotea, hori gerta daiteke haserre areagotzen denean. Baina, era berean, ekonomia ahul dago, eta prekaritateak haserre areagotu dezake. Ez dugu uste hobetuko denik, alderantziz. Boterearen kontzentrazio bat dago, eta ez du uzten estatuko botereak funtzionalak izan daitezen. Orduan, ustelkeriak gora egiten du eta horren aurrean ez dago inolako kontrolik. Nik egoera konplexua ikusten dut, batez ere gizarte eragileentzako.

A. Burgos: Lehen esan dut badaudela mugimendu neokontserbadoreak, baina badago aldaketa bat belaunaldietan eta hori ere ikusten da kaleetan. Guk orain arte egin duguna egiten jarraituko dugu: lurraldeak, emakumeak, gazteria, LGTBI komunitateak... lagundu. Giza eskubideen urraketak dokumentatzen jarraituko dugu, etorkizuneko justiziaren esperantzarekin. Badakigu boterea ez dela betiko, eta guk ametsetan jarraituko dugu gizarte justu eta berdinzalea lortzeko bidean. Errealitate feministak sortzen jarraituko dugu, badakigun arren hori ez dela inoiz borroka erraza izan: LGTBI komunitatea eta emakumeak beti egon gara salbuespen egoeran. Gure eskubideak ez dira beti izan ziurrak, horregatik ez dugu estatuan jartzen gure esperantza osoa: gure esperantza dira kolektibitatea eta gizarte sare komunitarioak, horixe da bidea. Gizarte eta herrialde gisa ditugun erronkak zehaztuko ditugu, eta gure ahotsak eskaintzen jarraituko dugu borroka justu honen alde. Isiltzea ez da aukera bat, boterean dauden alde egitea konplize izatea da. ●

EI POLITIKARIAK, "POPE" AKADEMIKOEK ESATEN BADIZUETE, AKTIBATUKO AL ZARETE BEHINGOZ?



GOIURI ALBERDI ETA
AINTZIRA OÑEDERRA
ASUNEK

Behetik gorako komunikazioetan ez da erraza mezuen garrantzia transmititzea eta makinaria politikoa aktibatzea. Askotan, gure mezuak "belarri batetik sartu eta bestetik atera" egiten direla sentitzen dugu. Beraz, gaurkoan, nazioarteko ikertzaile ospetsu batzuek nazioarteko batzorde batean esaten dutena ekarriko dugu. Politikariek goi-mailako ikertzaile horiek kontuan hartuko dituztelakoan, eta agian horrela bururatuko zaie beharrezko trantsizioetara eramango gaituzten estrategiak aktibatzea.

Ez gara "pope" akademikoaren oso jarraitzaile –Poperen definizioa: Arlo batean botere eta eragin handiko pertsona, oro har jarduera profesionalean–; izan ere, gure lana tokiko proiektuen eta subjektuen ahalmenean oinarritzen da. Hori da Agroekologiaren oinarria, hau da, tokiko Elikadura Sistema ekologikoak sustatzea, tokiko gizarteak, kulturak eta ekonomiak ahaldunduz, ingurumena zaintzen dugun bitartean.

Baina eskala txikietatik ari garenok desabantaila bat dugu: oso zaila zaigu politika publikoetan presioa egitea, denok batera botere faktikoei aurre egiten ez badiegu, gure mezuari ez zaio jaramonik egiten.

Horregatik, artikulu honetan estrategia aldatuko dugu. Gure ikuspuntua eman beharrean, Elikadura Sistemetan eta kliman uanean uneko nazioarteko akademiko garrantzitsuenen ahotsak dakarzkigu. Pope horien artean dago Johan RockStröm, muga planetarioei buruzko ikerketaren aitzindaria, zeinak argi eta garbi esan baitu Elikadura Sistema dela gakoa egungo krisi klimatikoari aurre egiteko. Ez dugu guk esaten, Johanez esaten du!

RockStröm jauna Elikadura Sistemaren Ekonomia Batzorde akademiko independente kide ere bada. Nazioarteko batzorde horrek tresnak eta ebidentziak



Johan RockStröm, Elikadura Sistemaren Ekonomia Batzorde akademiko independente kidea.

RYAN LASH / CC-BY-NC-ND 4.0

eskaintzen dizkie erabaki politiko eta ekonomikoak hartzen dituztenei, ingurumenarekin eta Elikadura Sistemarekin osasungarriak, inklusiboak eta iraunkorrak diren erabakiak hartzeko. Batzordeak aurtengo urtarrilean *The Economics of the Food System Transformation* txostena argitaratu zuen. Honen mezu klabea, Elikadura Sistemen eraldaketa premiazkoa dela, posiblea dela, eta etekin ekonomiko handiak eskaintzen dituela. *Touché!*

Azaldu dutenez, Elikadura Sistemen "aurrerapenek" gizadiak aurre egin beharreko erronka handi eta larrienetako batzuk eragin dituzte –eta eragiten jarraitzen dute–, besteak beste, gosea, desnutrizioa, obesitate-epidemia, biodibertsitatearen galera, ingurumen-kalteak eta klima-aldaketa. Giza sufrimendu eta kalte planetario horren balio ekonomikoa bilioietan kontatzen da, eta hori Elikadura Sistemek munduko BPGan eragiten duten ekarpena baino handiagoa da. Hona hemen "elikaduraren kostu ezkuak". Batzorde honen web-orrian kontagailu aktibo bat dago, 2016az geroztiko ezkutuko kostu ekonomikoak kontabilizatzen dituena. Bada, 2024ko apirilera arte, Elikadura Sistema industrialak kanpo-efektu negatiboengatik 123 bilioi dolarreko

kostu ezkuak eragin ditu. Gastu horiek gu guztiok, herritarrok (eta ez agro-industriako enpresariak), ordaintzen ditugu gure zergen bidez eta gure ongizate-zerbitzuak konprometitzen dituzte.

Txostenak argi eta garbi adierazten du egungo joerak mantentzen badira, eta hala dirudi, munduko Elikadura Sistemak eta euren ibilbide jasangaitzak etorkizuneko emisio globalen heren baten erantzule izaten jarraituko dutela. Isuri horiei esker, batez besteko temperatura orokorra 2,7 °C igoko da mende honen amaierarako, industriaurreko egoerarekin alderatuta.

Gogoratzen al duzue 2015eko Paris-ko Akordioa, eta nola klima-aldaketari aurre egiteko aukeraren bat izatekotan, gehienez 1,5 °C-ko igoerara iritsi beharko ginela?... ba hori....

Bai, badakigu, artikulu honetan esandako ezer ez dela berria, aurreko artikuluetan ere hitz egin dugula honetaz... baina, agian, auskalo, nork daki... Johan RockStrömek eta Nazioarteko Pope akademiko hauek guztiak esaten badute... "gure" politikariek Pope hauei bai entzungo dietela eta orduan, behar dugun aldaketarako benetako pausoak emango dituzte. ●

A ZE FAUNA!

MUNDU MAILAKO LAPURRA



EGOITZ ALKORTA MIRANDA
ARANZADIKO KIDEA

Azeria kanido bat da, otso eta txakurren familiako haragijalea. Animalia zuhur, maltzur eta argiaren fama dauka, eta ez alferrik! Ez da indartsuena izango, baina beti moldatzen da han eta hemen, mokaduren bat lortzeko.

Belarri tente zorrotzak, hantzi samarrak eta beltzak atzealdetik. Mutur luzea eta fina, goiko ezpain zuriarekin. Begi txikiak eta begininia bertikala. Hanka luzexka eta meheak eta oinak txikiak. Ilaje arre-gorrixa, aski ezaguna, eta isats oso luzea, punta zuri zuriarekin. Neguan zehar ilajea lodiagoa izaten du, hotzari aurre egiteko.

Munduan zehar oso zabaldua, era guztietako habitat naturaletan bizi da, baina baita gizakiaren presentzia ohikoa den herri inguruetan edo hiri handietan ere. Euskal Herria ez da salbuespena, eta berdin-berdin aurki dezakegu basoan, baserri inguruetan, labore lurretan, Pirinioetako gailur altuenetan, Bardeetan, hirietan, zabortegietan... oso-oso moldakorra da eta denera egokitzen da. Hori da bere arrakastaren gakoa.

Bakartia dela esan daiteke orokorrean. Arrak bere lurraldea markatzen du seinale usaintsu ugarirekin, leku nabarmenetan. Emeen araldia urtarrilean eta otsailean zehar izaten da eta garai horretan ezagunak dira azerien uluak eta zaunkak. Umealdia 1-12 azerikume artekoa izaten da eta arrak kumeen



KEVEN LAW / CC-A-SA-2.0

zainketan parte hartzen du. Ama eta kumeak janariz hornitzen ditu etengabe, baina ez da inolaz ere gordelekuan sartuko umeekin kontaktua izateko moduan. Bitxia benetan!

Edozeri helduko dio azeriak. Bere mutur luzearekin sagu, lursagu, satitsu eta antzerakoak ehizatzen trebea da oso eta kolpetik irentsiko ditu askotan. Erbi, koneju eta txoriak ere gustuko ditu. Fruitu, zomorro, narrasti, zizare, arrain... denetik ehizatzen du eta aukera guztiak aprobetxatzen ditu, baita sarrraskia ere.

Oso oportunistak izaki, gizakiaren presentziak eskaintzen dizkion aukera "errazei" ez die muzin egiten. Horretarako denetik egiten du: zaborrak miatu, ukiulu eta biltegietan sartu edo jendea dabilen eremuak gauero bisitatu. Oilo-lapuraren fama ere ondo irabazia dauka. Zelatan egongo da, eta aukera ikusten

AZERIA *Vulpes vulpes*

TALDEA: Ornoduna / Ugaztuna.

NEURRIA: Txakur ertain batena. 3-8kg artean.

NON BIZI DA? Era guztietako habitat naturaletan eta baita hiriguneetan ere.

ZER JATEN DU? Haragia eta fruituak.

BABES MAILA: Ez dago babestuta.

duenean, isilik, edozein zirrikitutatik sartu eta... zas! Eramango du oilo edo oilaskoa.

Horregatik segi izan zaio azeriari eta garai batean harrrapatu eta eskean ibiltzen ziren etxez etxe, kalte egiten zuelako. Pastor Izuela bertsolari aiarrak ederki kontatzen du hori "Txakur txiki gorria"ren bertsoetan. Azeri eskea egin nahian, Manterolako errotariak bizilagunaren txakur gorria hil omen zuen, eta etxez etxe ibili zen arrautzak bildu nahian.

Manterolako semia gizon abila da, nere txakur txiki hori hark berak hila da, azeria dulakuan hor ibilia da, zerbait bildu nahia badu hark fameliara.

Hala eta guztiz ere, ez da azeria aprobetxategi maltzur moduan ikusi behar. Ugaztun benetan eder eta trebe honek bizirauteko sekulako sena du eta espezie oso garrantzitsu eta beharrezkoa da bizi den ekosistema guztietan. Gainera, Euskal Herri osoan hain ezaguna izanik, gure natura ondarearen parte ez ezik, kultura ondarea osatzen duten tradizio batzuetako protagonista ere bada... zeinek ez du ba ezagutzen, adibidez, Hernanin eta beste herri batzuetan egiten den "axeri-dantza"? ●

PAGOAREN KONTUAK



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Geroxeago baina hemen da. Inguruan dituzten gainontzeko zuhaitzak baino beranduago janzten dira pagoak (*Fagus sylvatica*). Bizitzeko baldintza “gogorra-goak” nahi izaten ditu: toki hezeak eta freskoak. Baina izotzari beldurrak bizi da. Toki garaietan ikusiko duzu, erreka zuloetan urriago, baldin eta zulo gozo horietakoa ez bada. Erreketako beheko barrenetan izotza bildu eta pilatu egiten da eta bere kolpea latza izan daiteke, batez ere udaberriko berandu-izotzak hosto berritzea eta loratzea erre ditzakeelako. Pagoak badaezpada eguna dezente luzatu eta lurra berotu arte itxaroten du; udaberria aurrera doan seinale dira, eta seguru sentitzen denean biziberrituko da, kimu, adar, hosto eta lore. Tokian-tokian pizberritzea aldatu egingo da, gaur, hemendik hogeai egunera edo duela hamabost. Eta toki bakoitzean pago bakoitzak berak erabakiko du sasoi berrira noiz suspertu. Bizitza osoa inguru batean bizi den pago multzo batean ederki igarriko diozu: lehena bizkortzetik azkenekora bi edo hiru asteko tartea gerta daiteke, lasai asko. Lasai hartzen baitu pago bakoitzak bere bizitza, lasai, tentuz eta arduraz.

Kardaba edo adaburuhauste handia du sasoi pogoak. Bere kontabilitatea zorrotz zaindu eta eramateko egonarrria behar du. Har dezaun, aditzeko bide, ehun urteko pogo. Batez besteko baldintza normaletan hazitako ehun urteko pago horren ezaugarriak eta bere lana neurtzeko gai izan dira herbeheretarrak; Van den Berk mintegiak egin zuen bere mintegietako pago tzarretan, eta 2008-2009ko zuhaitzen gidan argitaratu. Poto egiteko arrisku handirik gabe 20 m garai luzatua izango da, eta zabalean 12 m inguru zabaldua. Gerri-



Pagoaren kimu berriak.

JAKOBA ERREKONDO / ARGIA-CC-BY-SA

buelta 60-80 bat zentimetroko perimetrokoa izango du. 600.000 hosto ditu. Bai, 600.000 janaria sortzeko makina; behar ere bai! Hosto horiek denak bata bestearen aldamenen jarriko bagenitu 1.200 metro koadroko saila estaliko lukete. Bizitzeko egunero 18 kilo CO2 hartzen ditu, hostoetan argiaren eta fotosintesiaren medioz elikagai izango dituen azukreak eraikitzeke. Urik gabe ezingo luke inolaz ere sorkuntza hori osatu: horretarako behar diren elikagaiak garraiatzen ditu, hazkundean parte hartzen du eta bizitzeko nahitaezkoa duen tenperatura neurria ekartzen du. Zenbat ur behar du pagoak egunero? Ba 400 litro; 400 litro bai: bilatu, sustraie-

tan, enborrean eta adarretan barrena ekarri eta lurpekoez gain beste 20 metro hostoetaraino ponpatzen ditu. 12 kilo azukre sortzen ditu beretzat, bizitzeko erregai izango dituenak. Hamar lagunek bizitzeko behar duten adina oxigeno ere askatuko du, opari. Bere lana ordezkatzeko 2.000 pago gazte beharko lirarteke. Garai hartan 150.000 euroko balioa zuen.

Orain hostotzen ari den pogo, dena emanda arituko den tresna izugarria izango da laster. Udazkenara arte; orduan hostoak antzaldutako ditu, erantziko da eta neguan murgil egingo du, atsedean betean erdi lokartuz. Hurrengo jantzialdira arte. ●

ELKEA

%100 AMEZKOAKO GARAGARDO EKOLOGIKOA, OLIBONDOAK ETA BESTE



GARAZI ZABALETA

Elkea proiektuan produktu asko eta desberdinak ekoizten ditu David Ruiz de Galarreta Azpilikueta ekoizle amezkoarrak. Olibondoekin hasi zen, baina fruta arboleak, lekaleek eta zekaleek ere beren tokia egin dute proiektuan urteotan. Eta, orain, jarduera berri bat gehitu die aurrekoei: garagardogintza. Bakedanoko bere lurretan ekoiztiko garagar eta lupuluarekin sortzen ditu Urederra Garagardoak.

2010EAN LEHEN HAZIA, 2016AN UZTA

“2010ean hasi nintzen olibondoak landatzen, Artaxoan, baina proiektuan buru belarri 2016an sartu nintzen”. Olibondoak izan ezik, gainontzeko ekoizpen guztia Bakedanoko familiako lurretan egiten du Ruiz de Galarretak. “Ni bakarrik nago proiektuan, baina nire bikotekidearen laguntza handia jasotzen dut”, adierazi du.

Nekazaritzako ikasketak eginak zi-



David Ruiz de Galarreta, Artaxoako olibondoetan.

tuen Ruiz de Galarretak, eta zenbait urtez nekazal sindikatu batean lanean aritu ondoren, bere proiektua martxan jartzeko gogoia sentitu zuen. Guztira hamabi bat lur hektarea lantzen ditu nafarrak. “Eskala txikian aritzen naiz, eta produktuei balio erantsia ateratzeko, salmenta zuzena egiten dut”. Ekoizpenaren zatirik handiena hurbileko merkatuetan, kontsumo taldeetan eta zuzeneko salmenta bidez ateratzen du, baina nekazarien zenbait saretan ere parte hartzen du, Hazialdeko eta Ekoalden kasu, eta Gipuzkoako Biolu-

rreko okinekin ere harremana du. Eraldatzeko, olibak Cascan-teko La Casa del Aceite errotara daramatza, ekologikoan egiteko aukera askorik ez baitu Nafarroan; eta, sagarrekin, berriz, Lodosako eraldaketa gune txiki batean egiten du zukua.

UREDERRA GARAGARDOAK

Berak ekoiztiko garagarrarekin eta lupuluarekin egiten du garagardoa, Bakedanon bertan eraiki duen lantegi txikian. “Ziklo osoa ixtea zen nire helburua, hori zen nire apustua”.

2019an hasi zen garagardogintzan, eta oraindik ikasten segitzen duela dio, baina gustua hartu dio honezkero. “Duela bi urte, bisita gidatuak egiten hasi ginen. Lantegi barruan eta lursailetan ibiltzen gara, lupulua ikustera ateratzen gara, garagardoaren elaborazio prozesua azaltzen dut...”.

Eskala txikiko ekoizpena izanik ere –edo agian horrexegatik–, hasieratik argi zuen Ruiz de Galarretak dibertsifikazioaren garrantzia, eta baita eredu ekologikoan ekoiztearena ere: “Argi neukan hasieratik, gauzak ongi egin nahi ditut”. ●

Nafarroa, lurralde ekologikoa

ETORKIZUNA EKOLOGIKOA DA aurrera goaz!

Ezagutu ekoizpen ekologikoaren datuak

cpaen.org
navarraecologica.org

ARGIA JENDEA



KORRIKA

Euskarari irekitako 84 leiho gehiago

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ikusi al zenuen, irakurle, Korrika Euskal Herrian barrena zebilen bitartean ARGIAk egin zuen kanpaina? Korrikak iraun bitartean euskaraz ikasten ari direnek ARGIAko urtebeteko harpidetza doan edo kitorik eskuratzeko aukera izan dute. Zoro zoragarri horiek... pentsatu nuen. Baina gero, nire gogorako, “ondo neurtu ote dute egitera doazena?”. Handitxo gera zitekeen gastu ekonomikoa ekar zezakeen horrek guztiak, baina ez, komunitatearen babesari esker posible izan da, eta oso pozik daude emaitzarekin.

Astebeteko epean 84 lagunek eman dute izena kanpaina eta Euskal Herriko oso txoko desberdinetatik iritsi zaizkie eskaerak, gainera. Gipuzkoatik heldu dira 27, 24 Bizkaitik, hamar Nafarroatik, bederatzi izan dira Ipar Euskal Herrikoak, eta zortzi arabarrak. Eta,

azpimarratu digute, lurralde bakoitzeko eskaeretan ere aniztasun handia dagoela: “Tantaka-tantaka, Euskal Herrian errealitate linguistiko oso desberdinak bizi dituzten lekuetatik iritsi zaizkigu eskaerak eta oso positibotzat jotzen dugu hori”, azaldu dute kanpaina bideratu dutenek. Madrilen eta Bartzelonan euskara ikasten ari diren zenbait ikasle ere, aldizkaria bidaltzea nahi dutela adierazi dute.

ARGIAk sinesten du euskalduntze eta alfabetatzearen alde halako bultzadak emateak merezi duela, eta bide horretan emandako urrats bat gehiago izan da Korrikak akuilatutako kanpaina. Hamar egunez sumatzen den ilusio eta indar giroa baliatu da euskarari 84 leiho gehiago irekitzeko. AEK-ko kideek Baionan zioten moduan, bakoitzari dagokigun ateak zabaltzea eta zabalaraztea.

Ongi etorri Komunitatera!

Arrazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIA Jende egin diren kide berrietako batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei, komunitatera!

“ ”

“Euskaraz irakurtzeko sutondoan, munduari so...”

Atharratzetik Ana Mariek

“Paperean irakurtzea atseginago zaidanez, jasoko dudan ale bakoitza ordaintzea bidezkoa iruditzen zait. Inork ez luke musutruk lan egin behar”

Donostiatik Nagorek


“Proiektu interesgarri asko daukazu. Euskaraz eta gureak diren gaiak jorratzeaz gain, kanpoko gauzez duzuen begirada gustukoa dut. Formatu aniztasuna ere oso interesgarria da”

Eskoriatzatik Garbiñek

KOMUNITATEARI ESKERRAK

“ARGIA diruz babesten duten gure komunitateko milaka kideei eskerrak emateko baliatu nahi dugu tarte hau”, adierazi digute, “haiek gabe ezinezkoa litzatekeelako euskara ikasten ari direnei aldizkaria doan bidaltzea”. ARGIArena elkartasunean oinarritutako harpidetza sistema da, bakoitzak ahal duen neurriko diru-ekarpena eginda, inor ez dadin arrazoi ekonomikoengatik ARGIArik jaso eta irakurri gabe geratu.

84 kide berriak, ongi etorri komunitatera! ●



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Mikroplastikoak ondare arkeologikoan

York (Ingalaterra), K.o. II. mendea. Eboracum erromatar hirian hainbat egitura eta etxe eraiki zituzten. Besteak beste, egungo Wellington Rowen harrizko eraikin bat egin zuten eta Queen's Hotela dagoen tokitik igarotzen zen harresian arku bat jarri zuten. Bi aztarnategiak 1980ko hamarkadaren bigarren erdian induskatu zituzten, eta, horri esker duela ia lau hamarkada jasotako lur laginak, zazpi metro sakonerainokoak, daude gordeta. Berriki, Yorkeko unibertsitateko adituek lagin horiek erabili dituzte gaur egungoekin alderatzeko eta ondorio kezagarria argitaratu dute *Science of the Total Environment* aldizkarian: lagin berrietan 16 motatako mikroplastikoak aukitu dituzte 1980eko hamarkadan ez zeudenak.

Ikerlan pilotua da egin berri dutena, ondare arkeologikoan mikroplastikoak detektatzeko egin den lehena; baina Yorkeko aztarnategiotan zazpi metroko sakoneran mikroplastikoak aurkitu izanak esan nahi du gainerako aztarnategi arkeologikoetan ere egoera antzekoa dela. John Schofield arkeologoaren esanetan, partikula horiek hain sakon iristek "gure ondare historikoaren parte diren objektuen kontserbazioa arriskuan jartzen du".

Aztartzeko dago mikroplastikoei zehazki zer kalte eragiten dieten aztarnategietako objektu eta egiturei, baina David Jennings proiektuko buruaren hitzetan, "mikroplastikoei lurraren



YORK ARCHEOLOGICAL TRUST

Yorkeko Wellington Roweko arrasto erromatarrek 1986 eta 1989 urte bitartean induskatu zituzten. Orain, orduan hartutako lagin batzuk erabili dituzte mikroplastikoei buruzko ikerlan bat egiteko.

eta sedimentuen konposaketa kimikoa aldatzeko ahalmena dute eta, horrek, esaterako, arrasto organikoak usteltzea eragin dezake".

Azken hamarkadatan, oro har, arkeologoek aztarnategietako objektu eta egitura asko in situ mantentzea hobetsi dute. Objektuak ehunka edo milaka urtetan testuinguru jakin batean kontserbatu dira, tenperatura jakin batean, elementu kimiko jakin batzuek inguratuta... Baldintza horiek bat-batean aldatzeak ondarearen kontserbazioan kalteak eragiten dituelako erabaki izan dute objek-

tuak ez mugitzea. Mikroplastikoak baino lehen ere, beste arazo batzuek eragin diete in situ kontserbatzen diren arrastoei: bestelako kutsadurak, turismo masiboak... Eta horien aurkako neurriak hartu behar izan dira. Baina mikroplastikoak geldiaraztea beste kontu bat da.

Jenningsen esanetan, "baliteke ondare arkeologikoa in situ babestea hemendik aurrera aukera egokiena ez izatea eta ondarea babesteko irizpideak goitik behera aldatu behar izatea". Mikroplastikoak ondare arkeologikoa ere hankaz gora jartzen ari direla, alegia. ●



THE HISTORY AVENUE

Erromatar ardoa ez zein hain txarra

Antzinako erromatarrek edaten zuten ardoa gaizki egina, gorputziki gabea eta zapore desatseginekoko zela uste izan da. Baina Gante eta Varsoviako unibertsitateetako ikerlariek *Antiquity*-n argitaratu duten lanak uste hori bertan behera uztea eragin du. Antzinako erromatarrek ardoa *dolia* izeneko tina handi batzuetan egiten zuten, ontzi horiek mundrunaz

inpermeabilizatzen zituzten, edabeak airearekin zeukan kontaktua kontrolatuz, eta, lurpean sartuta, tenperatura ere kontrolatu zezaketen hartidura prozesuan. Gaur egun, Georgian antzeko metodoa erabiltzen dute ardoa egiteko. Eta horri guztiari esker ondorioztatu dute erromatarrek uste baino ardogile hobeak zirela. ●

Maskaradaren hegaletan

Lehentze franko ditu Pagolako maskaradak: lehentze da Pagola herriak maskaradak ematen dituela; lehentze ere da Kabana pertsonaia neska batek jokatzeko duela; lehentze ere da maskaradako txirulariak oro neskak izan direla, Urdiñarbeko barrikaden denboran; lehentze da Kabanaren predikua “hain” talde lanean prestatzen dutela.

Baina badira hain agerikoak ez diren gertakariak: maskaradaz kanpokoak ez baitaki zinez zer den jokoan, ez baitaki zer engaiamendua den arizale eta ingurukoendako, eta ez daki ere, herrien arteko eta herrikideen arteko loturak tinkatzen diren, askatzen edo hausten. Komunitate afera baita oroz gainera maskarada-fenomenoa.

 AINIZE MADARIAGA MUTHULAR  MATHILDE BETACHET

Er ran dezakeguna da pagolarrak, engoitik, bertze maila batera pasa direla, Xamarren *Biziaroak* (Pamiela, 2023) liburua xehatzen digun bezala: “Zernahi adierazpide publikotan parte hartzea garapen maila batera heldu zirelako seinale zen, helduak ziren. Jadanik ez ziren haurrak, orain neska-mutilak ziren, herriko gazteria, zituen abantailekin eta betebeharrerekin. [...] Maskaradetan jardutea jauzi soziala zen herritarren aurrean, haurrek ez baitzuten parte hartzerik, zerbait iniziatikoa zen, beste mailara pasatzea”.

Neska-mutilak, beraz, helduago bilakatu dira eta Pagola herria bera ere bertze maila batera pasa da: Zuberoa eta Nafarroa Behereak harrapatuak bizi baita, Izpaxuri errekek juntatzen dituelarik biak, herri erdi-erdian. Hala ere, Nafarroa Behereko mapan sartua da ofizialki Pagola, Oztibarren, hain xuxen ere. Maskaradak, komunzki, Zuberoako herriek dituztenez ematen, horregatik azken mendean ez da Pagolan eginik izan. Gaur arte.

Preseski, Buhame Jaunak planteatu du galdera, kasik plazarat sartu ordu-

ko: “Pagolarrak zer gara? Zuberotarrez mintzo diren manexak? Ala manexez mintzo diren zuberotarrak?”. Publikoak badu zer gogoeta, zeren eta paperño batean izkiriatu baitu ustezko arrapostua, eta, arta handiz, tolestu du bitan, lautan, zortzitan eta berdin hamarretan ere... Ezin leku helkaitzan kukutu duen arte: uzkian. Beha egon beharko du ikusleak, Buhame erregeak noiz deliberatuko duen, dialektikaren behingoz trenkatzeko.

Pitxuren tripakiekin nola, entseatu gara maskaradaren barrunbeetar sartzen, azaletik bada ere, maskarada batean parte hartzeak zer erran nahi duen irudikatzeko, are gehiago, herrian berean ez bada jakitate horren transmisiorik izan.

Pagolarren esperientziak erakutsi die Zuberoako geopolitika guzia jokatzeko dela maskaraldietan. Mirentxu Lako maskaradariak eman ditu azalpenak: duela urte batzuk, orduko maskarada errebitu zituelarik Pagolan, bazkal denboran, aktore batzuek portaera “oso desagokoa” izan zuten. Baina, bi asteren buruan, barkamen-eske joan zitzaizkien.

Afera hartan bukatu zen, “arrunt lañoki”. Alta, aurtan, pagolarren aldi izan delarik herri hartarat joatea, ez dute gertakaria predikuan ere aipatu eta etxeetan “normal” portatu dira pagolarrak: “Gogoan genizun duela bi urtekoa, baina gureta-ko iragana zen. Ondotik, heldu taldeak Pagolako helduen taldeari mezua igorri zien eskertzeko nola portatu ziren pagolarrak, mendekurik gabe. Orduan, pagolarrak haien lagun onenak bilakatu gara. Hor ikusten duzu Zuberoan, herriz herri, zure herria nola kontsideratua izan den hoge bat urtez, ondoko maskarada arte hots! Gu aurtan, Suitza total! Dena Bingo! kur-kur-kur”.

Pagolako maskarada WhatsApp taldeak ditu deliberoak hartzen; hor baitira bildurik maskaradako gazteak eta txirularia. Goiz honetan, 08:20ean abiatu behar dutenez Pagolatik, hitzordua finkatua dute 07:30ean Aozteia ostatuan; izan ere, Pagolaren auzo-herria baita Urdiñarbe, berehala egina da bidea.

Aozteiko borta zabaltzearekin hantxe dute askaria prest-presta: dena katilu, fruitu-ur, erreximenta, burra, kafe, txokolata-esne... Herriko pilota elkartek



Urdiñarbeko maskaradako argazkiak. Apirilaren 14an egin zen, igandez.



hartu du eginkizuna bere gain: emanaldia duten aldi oroz, behar den tenoreko hor dute dena plantan emanik.

Batzuk ahamen baten jaten ari diren bitartean, anpleki, bertze batzuk arropaz aldatzen hasten dira, trentzak txirikordatzen, ttunttuna akordatzen... Mahai-ingurua apailatzen ari direnak oro gizonak dira, harat-honaka dabilzanak, bat edo bi salbu: 42 maskaradariak behin bukatu, xinaurriak bezala ari dira tira ahala den-dena garbitzen.

Partitzeko tenorea jin arte: ahukuan nola, bata bertzearen gibeletik doaz ibilgailuak Pagolatik dagokion herrirat. Kasurako, Urdiñarberat. Beñat da lehenbizikoa, berak baitu puntualtasunen palmares handiena: izan dadin ondoko herrian edo Zuberoako bertze puntan, segur da segizioa tanko tenoreko helduko dela helmugarat; berdin, bi minutu gutitan ere. Korrikako furgonetak bezala, artetan azeleratzen edo abiadura eztitzen du, komenientziaren arabera, ez duelarik ikusmiran puntualtasuna baizik. Beñaten gibeletik, furgonetak du bigarren postua, Yvesek denboraldi osorako utzi dio maskaradari. Xofer: Roger. Handizki idatzi diote karrozeriaren gainean: *Pagolako maskarada: Hua!!!* Ondotik datozenak gazteak dira eta heldu batzuk; sustatzaile fidelak. Azken hauek ere badute haien WhatsApp taldea, emanaldi bakoitzeko haien buruak antolatzen baitituzte autoak partekatuta.

Heldu dira Urdiñarberat eta barrikadak hausten hasten dira. Baina aitzin, soinuariak segurtatu behar dira; ez da

afera ttipia. Izan ere, Pagolak ez baitu txirulari bat baizik: Mirentxu Lako, baina bere burua ikasletzat dauka. Horregatik, estimatzen du errezibitzen duen herriko musikariak lagun dezaten. Alta, azaldu du Lakok: "Batzuetan hor dituzu tenorez, batzuetan ez, batzuetan lau hitzeman dizkigute baina bi agertzen dira. Ez dakigu sekulan sobera zertan konta. Baina gehienetan baduzu norbait". Hartara, musikari "kakoltzat" badu ere bere burua, bederen "burujabe" dela preziatzen dute, nehoen menpe izan gabe maskaradaren hasteko orduan.

Preseski, Urdiñarbek bildu du xixtakoa, aldi honetan, ez baitu herriko musikari laguntzailerik igorri: "Herriko musikariak ez baitira ari / gaur txululari bakarrik bi nesken balentri / holakorik ez züzün ikusi aspaldi". Ez omen da sekulan gertatu, hor bezala, txirulari guziak emazteak izatea.

Barrikadaz barrikada ibili da maskarada, Urdiñarben zortzi ukan dituzte, auzo ezberdinetan: anitz da. Urdiñarberetrek prestatu dituzte mahaiak, jan eta edanez beterik. Batetik bertzerat traktorea eta erremorkaz lekuz aldatzen dituz-



te maskaradari guziak. Lanbarre auzorat heltzeko, konparazione, hoge minutu behar izan dituzte, Urdiñarbe herriak lurrak zabal baititu.

Aldi oroz, harrera egiten duen herriko dantzariak, bisitarien aitzinetik, lehen dantza emaiten dute barrikadetan. Mezua argi da: "Guk gurea eman dugu, ea guk baino hobeki egiten duzuen". Horra desafioa. Orain, pagolarrei dagokie haien trebetasunaren erakustea, eta ahalaz, Urdiñarbeko dantzariak baino hobeki egitea.

Ondotik, Pagolako xorrotzek botatzen dituzte Lakok aitzinetik idatzi bertset pertsonalatuak. "Bertso xorrotzak; ez zorrotzak", bota du irriz.

Bertsoek zirikatzaileak izan behar dute, Urdiñarbeko eskola frantses elebidunari dagozkionak, eman dezagun, zer errana piztu dute: "Eüskaraz ta frantsesez betetzen haien kaier/ haurra elebiduna denik sinestea oker/ lortuko ditaik murgiltze sistemari esker". Eleak entzun bezain zalu, ikusleetan zen pastoral bateko errejentak erran du ahoan bilorik gabe: "O, luma zorrotz!". Lakok zehaztu digunez, "funtsean, barrikadetak bertsoen helburua da hiru lerro ezti igortzea, laugarrenean, aldiz, kilika. Edo, zirika lehenean, eta ilhar bihika irentsarazteko, azken hiruak eztiagoak". Bertso idazleak onartu du lan handia dela: "Ez duzu aritzea bezalakorik".

Horretarako, aitzineko asteetan egin-dako bilaketa-lan fina baitezpadakoa da;

Lehen aldiz, emakumea izan da Kabana Handia

herritar zenbait deitu baititu, Urdiñarbeko barrikadetak etxeetako edota egituretako informazioa biltzeko, anekdota hunkigarrien ehizatzeke. Adibide zenbait eman du: zendu berria bada etxeke bat, edo etxe horretakoa xorrotx-ohia bada, edo auzoaren historia begiratu... Segur dena da barrikadetak bertsoek eta Kabanaren zein Buhame jaunaren arratsaldeko predikuek ez dutela zerikusirik.

Maskaradako jauna orenaren zaindaria da, neurtu beharra du barrikada bakoitzean zenbat denboraz egon behar duten eta noiz lekutu, bazkaldu eta arratsaldeko jokoetarat berant ez heltzeko. Ez ditu beti erantzun goxoak entzuten: "Zer? Jada? Zer da Pagolako maskarada hori?". Dena zirika.

Barrikadaz barrikada, zortzigarrene rat heldu da ororen buru maskarada: Kerestuek haien eginbeharra bete dute orduan: zamaltzainaren zikiratzea. Kerestu mutilak esprabaten du lanaren egitea, baina ez baitu kausitzen, Pitxuri manatzen dio: "Hou Pitxu, houuu!".

Alta, Pitxu, zamaltzaina beharrean, kantiniarsaren gona-pean galtzen da eta sasi artean ohartzen ere ezin dela deus zikiratu. Kerestu mutilak du, azkenean, zamaltzaina zikiratzen.

GOIZEKO ALDIA, HORRETAN BEGO

Kabanak edo Aintzindariak hartzen du ardura 42 maskaradariak herri erre-zibitzailearen etxeetan banatzeko, ez baita nolanahi egiten: komunzki, maskaradako jaun-andereak auzapezaren etxerat baitoaz, musikariak musikariaren etxeetarat... Maskaradako karguak eta herrikoak baliokidetzen dira: "Baduzu bi mundu paraleloen konexioa!", gehitu du Lakok.

Barreiatzen da orduan ihauterietako hitzordua, norbera dagokion etxerat doa. Sarri juntatuko dira berriz, Urdiñarbeko plazan, 15:30ak inguru. Baina, dena ez baita haien gain... Izan ere, maskarada emanen duten herritarren esku dira orain arizaleak, haien etxeetan bazkaltzera gomit baitira eta ez bide da beti aisa eskaintzen errefusatztea, batez ere alkoholari dagokiolarik: "Behar duzu nortasun azkarra errateko: 'Ez, ura otoi'. Soziki ez duzu batere baloratua alkoholik ez edatea. Lehen herrietan, ohartu nauzu bazkaldu dudana etxeetan, alkohol anitzik hartu ezean ez diotela egiazkotzat maskarada. Hots, aktoreek beharko luketela arrailduak izan zinezko maskaradaren egiteko". Alta, Lakok azpimarratu digu gazteek bada-



kitela zenbat lan egiten duten emanaldi bakoitza aitzin: 15 bat orenez. Domaia litzateke beraz, azken uneko edariak obra guziaz baldintzatzea.

Lakok badu trukoa: “Nonbait jaten dudalarik, gazteen errespetuz, xutitzen nauzu eta erraten dut: ‘Banoa, tenorea baita’. Beste batzuetan, haien etxerat joan aitzin, galdetu izan diet: ‘Tenorea izanen delarik, lagunduko gaituzue plazarat? Bestela, ene autoa hartuko dut’, gertatu izan baitzait nonbaiten kasik kokatua egotea”.

Erran behar da, arratsaldean, Urdiñarbeko plaza luzaz egon dela donuts urtu baten gisan: publikoa horra baitzen, tenoreko, baina... protagonistek beranta bildu dute: 16:00etan abiatu ordez, 17:00ak aise pasatuak baitira. Harritzekoa izan da, ez baita Pagolako maskaradaren berezko ezaugarrietako bat. Hamahirugarren emanaldia izan da Urdiñarbekoa, bukatzeko, oraino hiru aste eskas zitzaizkion, edonork uler zezakeen jokalariai laxatzen hasiak ziratekeela, eta Dalíren ordulariak nola, denborak erlatibitate berria bildu zukeela. Ere, maskarada frankotan ikusi izan dena gerta zitekeen: berant hastearekin batera, arizaleak beroturik plazaratzea.

Baina ez, plaza inguratu dute beti bezain duin, serio eta fresko. Bai suma daitekeela akidura zerbait.

Publikoan, Hernanitik horra den bikoteak eskuan badu iparrorratza; Aritz Ibañez Lusarretak idatzi zuen artikulua: *Manexaren gida: 11 gomendio maskaradetan ez galtzeko*.

Jakitun ziren historian lehenbiziko aldiz kauteren nagusia, Kabana, emazte batek jokatu zuela, ez dira beraz estonatu, Kabana puxantak plaza hartu duelarik, hain segurki, hain indartsu, hain fierki. Alta, galdetu diote beraien buruari: “Aurtengo iraultza guzi horiek iraunen dute ondoko urteetako maskaradetan ere?”.

Ainara Agerrek aitortu du arrunt manera “naturaleran” hautatu dutela aurtengo Kabanaren rola berak har zezan: “Neska bakarra naiz beltzerian, baina betitik mutiko horiekin laguna naiz; elkarrekin ateratzen gara, besta egiten dugu, eta usatua izan naiz mutiko giroan ibiltzen. Beraz, enetzat ez da iraultza bat, normala da”. Etxeko normaltasuna, haatik, ez da usu kanpoko bera izaten. Alta, normala zaienez, deliberatu dute ez diskurtso feministarik egitea. Plazaz ahalduntzeko, Agerrek sartu aitzineko rolan sartzeko ariketattoa egiten du,



anitz laguntzen baitio. Eta, gainera, galdetuko balu bezala. “Pertsonaia sortzen duzu holako gauzekin eta segurtasuna ematen dizute, horrek ematen dizu beste energia bat, eta energia horrekin oraino gehiago, eta joan-jinka”.

Pitxu pertsonaia ere arrakasta gaitza bildu du; Zaza, Eliane eta Patricia argi dute aurtengoa berezia dela: “Pitxu izugarri on zuzun; bazuzun aspaldi ez genuela holako Pitxu ukan Zuberoan: naturala, librea, ideiak burura heltzen hola batetan, herriaren barnean ere lekua hartzen... Herri bakoitzeko plazetan atzematen dizu zerbait jendea irri eginarazteko, hemen urean sartzea... Urte oroz joaten nauzu maskaradaren ikusterat, eta usu, Kabanak hartzen dizu leku haboro Pitxuk baino, aldi honetan, atzematen dizut, Pitxuk leku alimalekoa hartzen duela, xorrotxekin eta dena”.

Pitxu emanaldiaz izugarri satisfos da: “Goxoa izan da aroaren aldetik eta jokoa ere, aski kontent gara ez baitzen luzeegi. Amiñi bat berant hasi gara, baina aroa alde zen! Bertze herriei konparatuz egia da jende gehiago bazela Urdiñarben, batzarre ona izan da, zinez!”.

Urdiñarbetar bat harritu da ikusi baitu ikurriña maskaradan; Buhame jaunak uzkitik atera duen paperñoa hutsa zen eta bota du: “Ontsa kakiten dugu pagolarrak zer garen, oroz gainetik, euskaldunak baikara!”. Horrekin

batera jalgi dute ikurriña, Zuberoako lehoia delarik haboro ikusten: “Ikurriña ateratzea iraultza bat da, buhameek nahitara hautatu dutena, kontzienteki Euskal Herri osoaren sentimendua oso guti garatua baita maskarada zale publiko horretan, beti lehoia izaten baita. Plaza publikoan ikurrina ateratzea zuberotarrez mintzatuz, ikaragarriko berritasuna duzu”, azaldu du Lakok. Azpimarragarria da ere aurtengo jokalariek hautatu duten euskara: zuberotar batuaz gozatu du publikoak, ulerterrazagoa edozein manexendako, ekumenikoagoa. Arizaleetan ez dira denak pagolarrak, oztibartarrak ere baitira, halaxe azaldu digu irriz Pitxuk: “Norberak bere euskalkia emanen dugu eta ageriko gustatzen zaionez beste jendei. Azkenean, egiazko zuberotar purek erran dute: ‘Ah, manex zenbaitzueendako, halarik ere, ez da txarra; izugarri ontsa ere!’”.

Maskaradan, bi xorrotxak txirikordatzen dituen *Pagola Oihaneko airea* eman dute. Xorrotx baten aitaxi baita orain arte airea zekien bakarria munduan, zeinak bigarren xorrotxaren ahaide bati ikasi baitzion haurra zela. Maskaradak josi ditu denak, izan ere, Xamarrek dioen bezala: “Erritual zaharrez eta ikusgarritasunaz gain, folklore honek guztiak duen eragin soziala, komunitatea kohesionatzeko elikagaia, kontutan hartzekoa da”. ●



Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	12	13	14	15
1															
2															
3															
4															
5															
6															
7															
8															

EZKER-ESKUIN:

1. Letra grekoa. / Mako, esekitoki. 2. Irinez urez eta gatzez egindako oinarritzko jangaia. / Pasa den urteko. 3. Argazkiko hiriburua. 4. Agiriez eta kidekoez mintzatuz, indarrean egoteari utzi. 5. Bi gauzaren edo pertsonaren arteko desberdintasun izugarri handi. / Errekatxo. 6. Lagatze. / Ekartzera behartu. 7. Marratxo. / Gogo biziz, irrikaz. 8. Eramaille. / Saguzarra.

GOITIK BEHERA:

1. Antzinako germaniar. / Haur, sein. 2. Konparazio atzikia. / Lotsagabe. 3. Estatuaren gobernuko sail nagusi bateko buru. 4. Zeelanda Berrian mintzartzen den hizkuntza. 5. Santuren apokopea. / Adizkiaren ezkerrean ezartzen den galde partikula. 6. Helburu, xede. / Letra izena. 7. Otordu batean, sarreraren ondoko jaki. 8. Nafarroako udalerria. 9. Kontsonante errepikatua. / "Emaila onak ... ezpainenak". 10. Bokal errepikatua. / Kulpa. 11. Gisu. 12. Loaz mintzatuz, astuna ez dena. 13. Sakatu aditzaren infinitiboa. 14. Atzizki handigarria. 15. Hankaren atala.

Sudokua

ERRAZA



6	1		5	3	7	8									
				1	6									5	
	2	7	8	9	4			6							
	3	8	1	5	9	6								2	
	5	2			8	1	9	7							
9		1			2									8	
2		5	9	8											
	9		7	4		2									
	8			2	1		5	9							

ZAILA

	1														7
9		6	3	2											
4		2	9					3						5	
	6	3						4							
	4				6										
	2				7	4									
					8			7							
	3							6	5	1					
	9									4	2				

Esaera zaharra

KOKA EZAZU PUZZLEAREN PIEZA BAKOITZA BERE TOKIAN ETA ESAERA ZAHAR BAT AGERTUKO ZAIZU.



Anagramak

HITZ BAKOITZAK AURREKOAK DITUEN HIZKI BERAK DITU, BAT IZAN EZIK, BAINA BESTELAKO HURRENKERAN.

Aukera aparta	MAUKA
Lepoak	
Burutapena	
Oihana	
Bakoitzak bost	
Brasilgo dantza	
Martxan	
Bueltan, inguruan	
Norabait	
Etekina, emaitza	
Mantendu, eutsi	
Gai koipetsu	
Kolore	URDIN

EBAZPENAK

BEHAR DA BILA. GALDU DEN TOKIRA JOAN

ATSOTZITZA

6	9	7	5	3	1	8	4	2
8	3	4	7	9	2	6	5	1
2	5	1	4	8	6	7	9	3
1	2	9	8	7	4	5	3	6
5	4	8	1	6	3	2	7	9
7	6	3	2	5	9	4	1	8
4	8	2	9	1	7	3	6	5
9	7	6	3	2	5	1	8	4
3	1	5	6	4	8	9	2	7

ZAILA

3	8	4	6	2	1	7	5	9
1	9	6	7	4	5	2	8	3
2	7	5	9	8	3	4	1	6
9	6	1	4	7	2	5	3	8
4	5	2	3	6	8	1	9	7
7	3	8	1	5	9	6	4	2
5	2	7	8	9	4	3	6	1
8	4	3	2	1	6	9	7	5
6	1	9	5	3	7	8	2	4

ANAGRAMAK

ERRAZA
GAUENARA.
EKARRAZAZI, 7. MARRAÑO, IRIKIAN, 8. EROALE,
DONOSTIA, 4. IRAUNGSI, 5. OSIN, ERREKASTO, 6. UZTE,
GAIKIK BEHERA: 1. GODO, UME, 2. AGO, OZAR, 3.
MINISTRO, 4. MAORIERA, 5. SAN, AL, 6. ITU, ENE, 7.
GAINEKO, 8. AZAGRA, 9. KK, IRRIA, 10. OOO, ERRU, 11.
KARE, 12. ARIN, 13. SAKA, 14. TZAR, 15. OINA.



Hautuak, afixak eta puzzleak

UDANE BARINAGARREMENTERIA LAKA

Galdetu nahiko nizuke zenbat aldiz ireki duzun liburu bat, idazlea ezagutu gabe, azalak, kontrazalak edo beste zerbaitek erakarrita. Gogoratuko duzu barruan aurkitu zenuena, ala ez. Gustatuko zitzaizun agian, bukaeraraino engantxatu. Idazlearen lan gehiago bilatzera eramán. Ala ez. Berdin dit. Berdin dit, batez ere, interesatzen zaidana, hain justu, ezezagunari aukera bat emateko hautua bera delako. Ordeztu nahiko nuke liburuaren azala kontzertu baten afixagatik eta berriro galdera egin: zenbat aldiz joan zara kontzertu bat ikustera taldea ezagutu gabe?

Galdera erantzunda neure kalkuluak konpentsatzeko edo, bezperan sare sozialetan afixa ikusi, Zarautzen bizi den lagun bati proposamena luzatu eta abiatu naiz autoz bertarantz. Ia ordubeteko bidaia daukat aurretik. Kontrazala irakurtzearen pareko, taldearen diskografia jarri dut bidean lagun egiteko.

Ostegun udaberri giroa dago Arrano tabernan, jende dexente kanpoan,

pizza zatiak eta zuritoak eskuan. Barruan, dena prest Dishesen kontzertua hasteko. Googlek kontatu didanez, Amsterdam eta Leiden artean sortutako taldea da eta Euskal Herrian sei kontzertuko jira egingo dute. Gaurkoa bigarrena.

Koska batek markatzen duen eszenatoki inprobisatu bezain txikian eman diote hasiera kontzertuari, atea papez estalita daukan garagardoz betetako hozkailu handi baten eta sukaldeko atearen artean, barratik metro eskasera. "Pixka bat behartuz gero, beti enkajatzzen du puzzleak", pentsatu dut.

Ezagutu gabe ezagun zaidan punk rock melodikoa da. Bateriaren presentzia nabarmenarekin eta riff itsaskorrekin, gorputza inkontzienteki mugiarazten dizun punk rock hori. Abeslariaren ahotsak eta egoteko moduak egiten du, agian, taldea berezi. Ez dago ahots urraturik, oihurik, *frontwoman* oldarkorrik, xamurtasun indartsu bat baizik; zaugarritasun tinkoz Palestinari, Europako muga hiltzaileei edo feminismoari abesten diena.

DISHES

NOIZ: apirilaren 19an

NON: Arrano tabernan (Zarautz)

Azken abestietarako sartuta gaude zuzenekoan, eta amaitzeko, sorpresa eder bat eman eta Kashbaden bertsio bat jo dute. Harrapatu gaituzte. Bertsioarekin bukatutzat eman dute, baina "another one!" dio publikoak. Ez dutela beste abestirik, abeslariak, esker keinuz. "Berdin da! *Repet! Repet!*". Konbentzitu dituzte eta hasi dira jotzen. Ekin orduko publikoko lauzpabost konplizeren artean altxa dute abeslaria. Beso artean etzanda, mikroa eskuan, irribarre zabala ikusten zaio, halatsu gainontzeko musikariak eta jendea ere. Orain bai, bukatu da. "Thanks for being here".

Autoan Kashbad jarrita egin dut etxerako bidea. Nire diruarekin erosi nuen lehen diskoa dela gogoratu naiz, eta denbora dexente zela entzuten ez nuela. Baliteke ezezagunak ezagun den horretara eramatea beti. Ala ez. Berdin dio. Underground kulturaren puzzleak, piezak enkajatzeko lana hartzea bezainbeste behar baitu puzzlearen parte izan nahi duten piezak bertaratzea. ●



LIBURUA

Belaunez belaun, egunez egun



HIRUKA.EUS

MUNDU ZITALAREN KONTRA LIZAR BEGOÑA

ELKAR, 2024

AMAIA ALVAREZ URIA

Lizar Begoñak eleberri honen aurretik bi poema liburu argitaratu ditu: *Aro beilegia* (Balea Zuria, 2020) eta *Geopardo japoniarrak* (Susa, 2022). Hirugarren liburuan ere badira zenbait irudi poetiko trama harilkatzen laguntzen dutenak: hodeiak eta basamortua, metafora gakoak lan honetan.

Horrez gain, zenbait kultur tradizioetatik oihartzunak datoz orriotara, besteak beste, Miren Agur Meaberen *Hezurren erretura* (2019) irakurtzen ari da protagonistetako bat eta bere dolua egiteko eskuliburu bihurtzen da berarentzat.

Izan ere hori da gai nagusia, aldaketak dakartzan galera eta dolua: harremanak bizitzeko eredu baten galera eta helduaroan sartze dagoen protagonistaren dolua; zahartzaroa, gaixotasuna eta zaintza kudeatzen hasten den beste protagonistaren krisia; herri baten tu-

ristifikazioaren goraldia eta gainbehera; komunikazioa eta informazioa erabiltzeko modu baten akabera...

Baina, bizitzaren aldeko kantua ere bada. Mundu zitalak ipintzen dituen oztopoak gainditzeko gonbita. Izenburuak Itxaro Bordaren *Euri zitalari esker* (2021) ekarri dit gogora eta berarekin horko fase aldaketa eta aldi baten itxiera. Lanean agertzen den poema Ovidi Montllor-en *A la vida* kantaren zati bat da, "bizitza arruntari oda" bat ere badelako lan hau duda barik. Hala ere, genealogiak eta belaunaldien arteko transmisioa dira liburu honetako ardatza. Pott bandako Sarrionandiak 1980an edo Lubaki bandako Canok 1990ean poesiatik narratibara egin zuten. Bordak 1980ko hamarkadan, Meabek 1980 eta 1990eko hamarkaden artean eta Rozas 2000 hasieran egin bezala, Lizar Begoñak poesiatik narratiba-

rako jauzia egin du 2020ko hamarkadan.

Beraz, zer du esateko XX. mende amaieran jaiotako eta mende aldaketarekin batera hazi den belaunaldiko kide honek? Zein imaginario berri ekarriko digu euskal letretara? Hori da nobela honen ekarpenik handiena.

Bere narratzaileetako baten hitzetan: "Batuetan gure belaunaldiaren zahartzaroarekin fabulatzen dut. Zer kontatuko diegu ondorengoei? Isildu gabe imajinatzen ditut gure maitasun iraultzaz berbetan, lotura bolleroez, ez-tanda transfeministaz, mobilik gabeko haurtzaroez, baina whatsappen sorrerarekin kointziditu zuen nerabezaroez".

Bi narratzaileek bi belaunaldi ordezkaturako dituzte eta leku eta denbora berean bide paraleloak ibiliko dituzte, hurbil eta urrun aldi berean. Segi ditzagun euren urratsak. ●



MUSIKA

Aiztoa erakutsi!

TXOPET
NAHIZ ETA JAUSI
 AIRAKA, 2023



XALBA RAMIREZ

Autotunea eta rocka nahastea izango da zakilzagarrentzat sakrilegiarik handiena: “Tranpa” dela, hori musika ez dela, edonork egin dezakeela. Musikariek badakite, ordea, gitarra elektrikoari efektu pedalak kenduz gero, zatarra eta, batez ere, zaila dela jotzeko. Alegia, teknologiak tresna bat gehiago direla.

Bilbotik datoz Txopetekoak, haien lehen lan luzearekin –lehendik EP bat kaleratu zuten–, eta lehen itxuran, pop-rock-tuneatua egin dute. Adiago entzunda, baditu garagearen zikinkeriak eta punkaren jarrera. Baina ororen gainetik badute, iluntasuna performatu arren, poztasun eta bizipozetik nahikotxo. Madeleinekoek erabiltzen duten etiketa datorkie ondo baino hobeto: *poz rock*.

Animalia batzuen moduan jaten dute eszenatokia Txopetekoek. Mikrofonoaren sartu-aterak, baxuaren riff erasokorrak, bateria simple bezain indartsuak... Andoni Barinaga-Rementeriak (bateria) eta Iñigo Gumes *Wemes*-ek (baxua) beti gauza bera esaten dute: “Eszenatokira igo-tzen garenean, ez dakigu zer gertatuko den... Tira, ez dakigu zer egingo duen Jonek!”. Taldea talde den arren, Jon Fernandez gitarra-jotzaile eta abeslaria de-



lako anabasaren erantzule; taula jaten duen piztia eta ehiztaria.

Aiztoa Erakutsi-n, handik eta hemendik bildutako piezak jaso dituzte, eta hasiera batean ez dirudi disko kontzep-

tuaren estetikan gehiegi pentsatu dutenik. Azaleko mamuen zoologiko koloretsua horren adierazle da. Baina kanta eta kanta artean nabigatzen hasita, denek dute arima berbera: riff indartsuak, energia eta melodia bizibiziak. Kontzertuetan errepikak saltoka abestekoak, badakizue: “Nahiz eta jausi, behin eta berriz, aiztoa erakutsi!”.

Nik ez dakit zertarako dituen jendeak managerrak, eta zergatik uzten dieten idazten. Airakak honela definitzen du taldea: “Entzulea hotz utziko ez duen soinu-proposamen *post-millenniala*”. Eta, nago, artikulua honen hasieran bezala, denbora daromagula berri izateagatik barkamena eskatzen eta azalpenak ematen. Uste dut dela euskal kulturaren ekosistemak ez duelako eztabaidarako espaziorik, ezta ohiturarik ere.

Bada garaia taldeengana hurbiltzeko, estiloez eta teknologiez egiten duten erabileratik pixka bat harago joateko. Betikoa errepikatzerat nator: nondik egiten den eta norentzat. Hori da eztabaida interesgarri bakarra. Txopetekoek badakite, eta doazen lekura doazela irabazten dituzte bihotzak. On puska batzuk direlako, eta barru-barrutik ari direlako. ●

Lagunak, adiskideak eta beste hainbat etsai

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Pasa den asteburuan inguruko jende guztia Pedro Sánchezen aferaz aritzea espero nuen, baina larunbateko bazkalostean beste kontu bat zegoen *trending*: Jon Sarasuak Donostian bertso txapelketei buruz emandako hitzaldia. Euskal gai bat Telecincori eta LaSextari irabazten, alajaina: oraindik bagarela zerbait. Gehienok hitzaldi hartan esandakoa ezagutu badugu, Amagoia Mujikak *Naiz*-en argitaratutako kronikaren bidez izan da; gero erreakzio zorrotada etorri da sareetan; eta ni nire artean: “Sarasua oker dabilela iruditzen zait ba; ez dut ulertzen zergatik enpeinatzen den hainbeste jende hari arrazoia ematen”.

Ea, esplikazioak: Sarasuak urteak daramatza ezker politikoarekin kritiko izaten eta, alde horretatik, harritzeko-harritzekoa ere ez da joan den astekoa. Nobedade nagusia da kritika horretan *anti-woke* paketea integratu duela, alegia, AEBetako eskuinak tonaka esportatu dituen topikoetako batzuk –balizko zentsura progrea edo sistemak ustez bultzatzen duen multikulturalismoa, LGTBI politikak eta abar-. Eta oker dabilela diot, erantzun errazegiak iruditzen zaizkidalako horiek, Sarasuak berak aitortu izan duen bezala, bizi duen urtetako krisi ideologikoarentzat. Joera aurrerakoi guztiez ideologia bakarra balira bezala hitz egiteak, adibidez, brotxaren lodieraz pentsatzen jarri ninduen, bandaren zalaberraz ahaztuta.

Eta hala ere, erreakzioek neurri batean arrazoia eman diotela uste dut, kontrako helburua izan arren: ezkerrean kartzelazioa salatzen duen norbaiti egin dakiokkeen faborerik handiena da horrelako adierazpenen aurrean herri-espantugintzan hastea –“Ikusten? Ezin da ezer esan!”–, are gehiago iruzkinen portzentaje handi bat deskalifikazio pertsonal hutsak badira. Artikulu gutxi eta txio



ANDONI CANELLADA / FOKU

asko produzitzen ditu euskal komunitateak. Eta, niri behintzat, eztabaida publikoan jokatzeko duen modua ikusita, ez zait iruditzen bere buruaz daukan irudia bezain progrea, Carl Schmitten lagun/etsai bereizketan gehiegitan erortzen baita: etsai publikoa aurkitzen duenean ordena aurkitzen du; eta hasperen egiten du, azkenik lasai haserretu daitekeelako norbaitekin.

Baina ezinbesteko etsaiaren bilaketa ez da “ideologia progresistei” leporatu ahal zaien zerbait –Schmitt nazia izan zen–. Eta beste hainbeste esango nuke bertso txapelketen ajeez ere. Markoa aipatzen duen arren, Sarasua pinturaz ari baita etengabe, alegia, txapelketetan kantatzen den eduki politiko konkretuaz. Nik berriz, inpresioa daukat txapelketan gertatzen den guztia edukiontzia berak baldintzatzen duela. Ze, azken finean, zeri buruz ari gara? Sortzaile batzuek beren merkatuari ia 1:1 eskalan aurre egin

behar dioten egoera batez, kantatu behar duenarentzat nahiko krudela iruditzen zaidana, bezeroak berehala erreakzionatu dezakeelako –eta bat-batekotasuna ez da, denok dakigunez, ñabarduren oso laguna–. Marko hori nahi duzuna izango da, baina aurrerakoia ez zait iruditzen.

Hurrengo lau urteetako bertsolari onena nor izango den lehia individualizatu bidez ebatzea, bertsolariak ez-dakit-zer mugimenduren ordezkari hartzeari, sorkuntza gauza puntuagarri bilakatzeari eta beste zenbait kontu ere eztabaidagarriak izan daitezke, hain zuzen, ez direlako ondo ezkontzen, nire kasuan behinik behin, emantzipazio kolektiboaz daukadan ideiarekin. Kritika asko daude egiteke bertso txapelketez, ezkerreko marko ideologikoetatik batera ateragabe. Baina klaro, aber nork jartzen duen kopeta intxaur horiek irekitzen hasteko. Errazagoa da, noski, gaitz guztiak pertsona bakarrari leporatzea. ●

ZIBURUKO 5. LIBURU ETA DISKO AZOKA

EKAINAREN 1EAN



ANTOLATZAILEAK



PARTAIDEAK



ZIBURU
CIBOÛRE

100 URTE Moderno

eta / edo

garaikidea

Marta Cárdenas, *Historietaren etena*, 1975. Margoa © Marta Cárdenas, VEGAP, Donostia / San Sebastián, 2024

Antolatzailea :



Erakunde babesleak:



SAN TELMO MUSEOA

Erakusketa, 2024ko apirilaren 13tik aurrera